

**Aste Santurako
oporraldi berezia
prestatu dute,
eskualdean
gaztetxoendako** | 4

**Bergarako EH
Bilduk "kezka"
erakutsi du
Seminarioko
proiektuarekiko** | 10

EZKONTZEN GEHIGARRIA
Jatetxeak, lentzeria, garraioa... | 25



**Elgetako Espaloia Kafe
Antzokia itxita dago** | 19



**Debagoiengan ere izango da zer
ikusitako Aste Santuan** | 4



GERTU

Bergarako hiru biltegitan daude
gordeta edukiontzia berriak | 3 eta 'Herriak' saila

Bergarako Aitziturriko fabrika zaharrean gordetako
Bergarako eta Elgetarako edukiontzia.

UBANE MADERA

Ziklistendako erakusleihu onena Gorlako 42. igoeran etzi, domeka

Bergarako San Martin plazatik
irtengo dira txirrindulariak,
10:00etan. Aurten ere Udanatik
eta Oñatitik pasatuko da ibilbi-
dea, iazko arrakastaren ondoren.
Bestalde, Bergarako Udalak Gor-
lara igotzeko bi autobus jarriko
ditu herritarrendako, auto pila-
ketarik ez gertatzeko. | 21

APIRILAREN 8RA ARTE, PARENTESIA

Aste Santuko
oporraldia dela-eta
hurrengo GOIENA
apirilaren 8an,
egubakoitza,
argitaratuko dugu.
Ondo ibili!

SINADURAK

	Eguneroko mozerro eta maskarak 5 JOSEBA GABILONDO MARKES
	5 Ateak zabaldu elkartzunari ARANTZAZU EZKIBEL
	Talde sena 8 GAIZKA ERAÑA
	12 Trena berriz ere martxan ELIAS ZUMALDE
	Argi dago 14 INAXIO GARRO
	40 Urak dakarrena AINTZANE DIARBIDE

puntua

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Ingurumenaren eta ekonomia-aren erronkak
- Josemari Velez de Mendizabali elkarriketa

HURRENGO 'PUNTUA' APIRILAREN 8AN

Passat Alltrack



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Aintzane Oiarbide | Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatua

"AP-1ean, Eskoriatzan, udarako espero dugu erabateko normaltasuna"

- Antzuola eta Bergara arteko errepidea bukatzea lehentasunezko zatia du
- Prebentzioa edo artapena ere bada Diputazioaren helburuetako bat

E. AZKARATE / U. MADERA | DEBAGOIENA
Deskargako autobidearen, AP-1eko Eskoriatzako luiziarren eta Bidegiren gainean jardun zuen Aintzane Oiarbidek, Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatuak, Eneko Azkarate kazetariaren galderei erantzuten, Goiena Telebistako *Harira* saioaren denboraldi berrian.

Eskoriatzan AP-1ean iaz martxoan, ondoren azaroan luizi garrantzitsu bat gertatu zen; zein da egoera?

Erdiko euskarri-pantaila bukatuta dago, eta ari gara hirugarren pantaila diseinatzen. Espero dugu udarako bukatuta egotea. Mendi magal hori oso konplikatu izan da. Urak direla-eta 2-3 luizi izan ditu, eta autobidea egin zenean ere arazoak izan ziren, terreno oso konplikatu delako eta lurra asko mugitzen delako. Hasieran ez zen beharrezko azterketa geologikorik egin, bigarren luiziarren ondoren bai egin dugu; egia da emergentziatzko obra zela, baina, behin hasita, azterketa geologikoa behar zen, eta denborak esan digu bigarren luiziarren euskarria diseinatuta zegoena baino sakonagoa behar zela. Madrildik ekarri dugun beste geologo-adituak asmatu du bidea, ikusi dugu zenbat euri egin duen, eta nahiko ondo eusten dio mendiari, eta hirugarren pantailarekin behin betiko konponketa izango dugu. Espero dugu dena normalizatzea udarako; ahal bada lehenago erreiren bat zabaldu, zabalduko da, baina, oraingoz, normaltasun osoa espero dugu ekain edo uztailerako.

Zein da horren kostua?

Teknikariak egiten dute kalkulua; izan zen 2.100.000 euro inguru. Baina adjudikatzeko orduan, kontratak hartu zuenean, %37ko bajaran adjudikatu zen; horrek esan nahi du 1.600.000 ingurura jaitsi zela, eta horrek eragin handia izan du obra aurrera eramaterakoan. Orain ikusten dugu ez dela nahikoa diru hori obra erabat bukatzeko, ez hasierako planteamenduetarekin,



Aintzane Oiarbide Harira saioan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Arlabango kereilan funtzionarioen konklusioak erabat desberdinak dira"

ez eta ikusi dugun luizien ondorioz egin beharreko lanekin ere. Azken pantailaren soluzioa dugunean, aurrekontu definitiboa izango dugu, baina uste dut hiru milioi euro inguru izango dela.

Antzuolan ere antzerakoa gertatu zen; badirudi bideratuta dagoela...

Aurreko gobernuak obrak hasi zituen, obran bertan arroka apurtu egin zen, eta egon zen arriskuan; guk, udaletan-eta oposizioan ginenean, esaten genuen lehenbailehen konpontzekoa zela, eta urtebetean izan zuen aurreko gobernuak konponketak egin barik. Gainera, oso arriskutsua zen; teknikariak esaten dutenaren arabera, %1eko koefizientearekin, eta horrek esan nahi du edozein momentutan arrokaren bat eror daitekeela. Zorionez, arrisku hori ekidin dugu; hasi genituen obrak abuztuan, sei hilabeteko exeku-

zio-epearekin; epe barruan eta prezio barruan bukatu da eta uste dut oso ondo geratu dela; izugarritzko mendi magala da. 40 bat metro ditu errepidetik hasita, eta oso gustura gaude nola gelditu den obra hori. (...) Legealdi honetarako lehentasuna Antzuola eta Bergara arteko errepidea bukatzea da. Hori bukatzen bada kontratuak esaten duen epearen barruan –obra bi urte barru bukatuko litzateke, gutxi gorabehera–, gus-tura geratuko gara. Jende asko ibiltzen da Goierri aldetik hona eta Debagoienetik Goierri aldera eta jende askok eskatzen du bukatzea. Hortik aparte, Gipuzkoan baditugu artapeneko programa berriak. Horrek egiten duena da aurre hartu luiziei, itsasoaren kolpeei eta errepide arazotsuetan artapen prebentiboa. Hori da gure helburuetako bat: artapen hori aurrez egitea. Gaur [martitzena] Diputatuen Kontseiluan bost proiektu onartu ditugu martxan jartzeko, guztira 14 milioitik gora: horrek esan nahi du apustua egiten dugula artapenaren eta prebentzioaren alde.

Bidegi auzitan da; aurreko agintalditik dator: EH Bilduk EAJri leporatu zion 30 milioi euroko zuloa, bes-

teak beste, Arlabanen egindako lan batzuegatik. Oraingo foru gobernuak kezkatuta dago?

Ez da kereila bat EAJren aurka, baizik eta pertsona batzuen kontra. Kereila kriminal batekin inputatuta daude eta oso salaketa serio eta gogorra da. Pertsona horiek dira teknikariak, Bidegiko administrazioako langileak... bakoitza bere familiarekin, seme-alabekin... Oso gaizki pasatzen ari dira. Bi kereila aurkeztu zituen aurreko foru gobernuak. Kereila horiek defendatzeko kanpoko abokatu batzuk kontratatu zituen eta txosten teknikoak behar zuten kereila jartzeko oinarri; txosten hori ere kanpoko ingeniari-tza batek egin zuen. Diputazioak badi-tu Gipuzkoan esperientzia handia duten ingeniariak; beraz, bertakoek egingo dute kereila horien oinarri diren txosten teknikoen errebisioa. Bestetik, Diputazioaren interesak defendatzeko, aurreko gobernuak kontratatutako abokatuak ezker abertzaleko inguru-koak ziren, eta guk horien orde-z erabaki dugu Diputazioako erre-gimen juridikoko abokatuek eurek eraman dezatela defentsa. Nola dagoen hori? Teknikariak egin dute Arlabango kereilaren errebisioa, oso zehatza; kereila egiteko ingeniari-tzak erabili zuen informazio bera erabili dute, bai-na konklusioak erabat desberdinak dira: esaten dutena da manipula-zioa dagoela txosten tekniko horretan. Diputazioako funtzionarioek sinatzen dute txostena, eta funtzionarioek badakite epailearen aurrera joan beharko dutela egin duten informea bermatzera. Entregatu dugu txosten tekniko eta epailearen eskuetan dago. Ez dakit hirugarren bat eskatuko duen, adituen beste txosten bat... baina funtzionarioek egindako txostenaren arabera, ez dago kereilan datu bakar bat ere ontzat ematen dutenak.

AHTko lanek Untzillan eragindakoa salatu dute

JOSU BILBAO | ARAMAIO

Untzilla auzoan egiten ari diren AHTren obretako gune batean euste-horma bat behera etorri zen. Hori dela eta, "babesa eta elkartasuna" eskaini nahi izan diote Lugartegi baserrian bizi den aramaioar kaltetuari eta Abiadura Handiko Trenaren lanek kaltetu dituzten beste debagoiendarrei ere. Hala adierazi zuten atzo, eguna, prentsaurrekoan.

"Astakeria"

Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlana taldeak azaldu du urteak daramatzatela "obrek eragindako kalteak jasaten" eta Abiadura Handiko Trena "inoiz ere egin behar ez zen astakeria" dela salatu dute. "Gainera, AHTko metro bakar baten diruarekin kaleratze bat geldi daiteke, euskarazko hedabide bat sortu daiteke edota 100 pentsionista pobreziatik atera daitezke"; horixe adierazi zuten.

Obrek eragin dituzten kalteak salatu nahi izan dituztenen artean, Lierni Altuna Aramaio-ko alkatea ere izan zen Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlaneko kideekin batera.

Bergarako Arcelor-Mittal aurrera, oraingoz

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Arcelor-Mittalek bukatutzat eman du euskal lantegietan egin duen berregituratzea. Multinazionalak jakinarazi duenez, Bergarako eta Olaberriako lantegiek "normaltasunez" dihardute lanean; oraingoz, behintzat. 168 langile ditu Bergarakoak, eta, bestelako berri-rik ez dagoenez, orain arte lege-z jarraituko dutela lanean adierazi dute. Edozein modutan, Bergaratik eroandako 43 lan-gilek baziharduten Zumarragako lantegian lanean.

Arrasaten

Esan baietz betiko

RPS: 741/13

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE

Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Edukiontzi berriak apirilaren 11ko astean banatuko dituzte

Bergaran eta Eskoriatzan txartelak banatzen jardun dute oraingo astean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Valentziatik, Bartzelonatik eta Madrildik zatiak ekarri, haiek eskuz muntatu, eta Aitziturriko eta Labegaraietako biltegi banatan eta Epeleko konpost-gunean –Bergara– gertu daude apiril hasieran Bergaran, Eskoriatzan eta Elgetan ipiniko dituzten edukiontzi berriak.

Apirilaren 11n, biak kalean

Bergarara eta Eskoriatzara hondakinen bilketa sistema bera aldatzeko eramango dituzte edukiontziak; atez atekoari dagozkion zintzilikarioak ordezkatzeko, alegia. "Apirilaren 11ko astean hasiko da bi herriotan despiegea, zatika, hurrengo astean –apirilaren 18an– bilketa sistema berria martxan jartzeko, hori ere bi udalerriotan. Beraz, apirilaren 11ko astean zintzilikarioak eta edukiontziak batera egongo dira kalean. Bitarte horretan, edukiontziak itxita egongo dira, eta zintzilikarioak erabiltzen jarraitu beharko dute herritarrek. Eta apirilaren 18an, ja, edukiontziak bakarrik erabiliko dituzte. Graduala izango da, beraz, sistema aldaketa", esplikatu du Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Batzordeko kideak.

Marroiak eta grisak

Bi udalerriotan jarriko diren edukiontzi ia guztiak marroiak –organikoa batzeko– eta grisak

–errefusa– batzeko dira. Hala ere, hori koloreko –ontzi arinak– eta urdin koloreko –papera eta kartoiak– batzuk ere gertu daude, udalerriotan zaharkituta daudenak ordezkatzeko.

Elgetan, berriak

Elgetako edukiontziei dagokienez, berriz, gaur egun daudenak ordezkatzeko izango dira biltegietan daudenak; izan ere, Elgetan ez dute bilketa sistemarik aldatuko, gaur-gaurkoz txip bitarteko edukiontzi marroiak erabiltzen dituzte-eta organikoa batzeko; Bergaran eta Eskoriatzan erabiliko duten sistema bera, hain zuzen.

Baina "orain dauden goi karga-koak barik, alboko kargakoak ipiniko dira, erabilerara egokitzeko", esplikatu du Arregik.

660.000 euro pasa

Edukiontzi berri horiek guztiak gehi Arrasaten 2014ko martxoan jarri zituztenak 2014an erosi zituen Debagoieneko Mankomunitateak, 661.460 euroko aurrekontuarekin –BEZ barik–. Bestela esanda, batez bestekoa eginda, eta edukiontziari txipa gehituta, edukiontzi bakoitza 800 euro baino gehiago kostatu da.

Aretxabaletakoak falta

Bada orain, Aretxabaletan bilketa sistema aldatzen denerako edukiontziak erostea falta da. "Udaberrian beste lehiaketa bat deituko dugu, Aretxabaleta hornitzeko", esplikatu du Arregik. Legeak behartuta egin behar dute hori; edozein modutan, deialdi berria aprobetxatu gura dute edukiontzi marroietan modelo aldaketa lortzen ahalegintzeko: "Arrasateko esperientziagatik badakigu herritar batzuei altu samar geratzen zaizkiela organikoari dagozkion edukiontziak, eta, posible bada, edukiontzi baxuagoak ekarri nahiko genituzke", esplikatu du Ingurumen Batzordeko kideak.

Aretxabaletari dagokionez, han ekainean gauzatuko dute hondakinen bilketa sistemaren aldaketa.

DATUAK

3

GUNETAN

Aitziturin, Epelen eta Labegaraietan daude gordeta edukiontzi berriak.

800

EURO PASA

Edukiontzi bakoitza (txipa barne) 800 euro baino gehiago kostatzen da.

"Justiziarengan erabateko konfiantza" du Mondragonek

Oraingo astean jakinarazi diote Mondragon Taldeari Ordainduren eta Eskuraturen eskaria

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

"Mondragon korporazioari gaur ezagutarazi diote Eskuratu eta Ordaindu elkarteetako kideek

aurkeztutako demanda. Une hone-tatik aurrera, zerbitzu juridikoak tramitazioaz eta jarraitu beharre-

ko prozeduraz arduratuko dira. Horrenbestez, gaiari buruzko eskumena justizia auzitegi arruntetara eramaten da. Mondragoneko kooperatibek gizarteari adierazi nahi diogu justiziarengan erabateko konfiantza dugula".

Jakinarazpen hori egin du Mondragon Taldeak oraingo astean, martxoaren 8an epaileek tramitera onartutako eskariaren gainean. Hain justu, 47,8 milioiko salaketa ipini diote bi plataformek korporazioari.



IMANOL BELOKI

"GOIZPERREN denok egiten dugu ekarpena eta ahalegina; saria denondako da"



I.B.

"BULTZADA eta errekonozimendua da saria, gauzak egiten jarraitzeko"

Goizper eta Ternua Group saritu dituzte Gipuzkoan

Lau saridun aukeratu ditu Gipuzkoako Bazkondeak, eta bi dira Debagoienekoak

I. BELOKI / U. MADERA | DEBAGOIENA

Arrasateko Ternua Group, Antzuolako Goizper Group, Eyher eta Logikaline saritu ditu Gipuzkoako Bazkondeak. Gipuzkoako Enpresaren Sarien 24. edizioan saritutako enpresak dira. Bestela esanda, aurtengo lau sarietatik bi Debagoieneko enpresendako izan dira.

"Eman digute saria ekonomian eta munduan sortzen ari den egoera berri edo merkatu berri honi egokitzeko moduagatik, Ternua Group bezala, talde berri bezala. Taldea nahiko gaztea da, 2014ko bukaeran sortu zen, elkartu ginenean Import Arrasate–Ternua eta Astore–eta Lorpen Etxalarren –Nafarroan–, galtzerdi teknikoak egiten zituen enpresa (...) 2015ean %33 fakturatzeko gaitasuna atzerrian, eta gure

intentzioa da 2018rako %50 izatea hori", jakinarazi du Imanol Muñozek, Ternuako marketing buruak.

"Saria da azken boladan Goizperrek egin duen lan onarengatik, Goizperren lan egiten dugun denondako saria da. Denok egiten dugu ekarpena. Salmentatik %80 kanpoan (atzerrian) saltzen da, eta horregatik izan zen saria", esplikatu du, berriz, Antton Mendizabalek, Goizperreko Pertsonen zuzendariak.

Esanguratsua

"Bailarako bi enpresa egotea esanguratsua da, nahiz eta enpresa txikiak izan, pymeak, begiratzeko ari garela munduan zer egiten ari den eta ea nola adaptatu gaitzeko egoera berri haue-tara", borobildu du Ternua Group-eko ordezkariak.

Debagoieneko Ernaik Laudion egingo den Gazte Danbada gonbita egin du

U.M. | ARRASATE

"Bide propioa eraikitzeke garaia dugula iritzita, urratsak egitera gatz. Gazteok badugulako zer erabaki. Etorkizuna gara eta etorkizuna eraiki nahi dugu. Badugu erabakiak hartzeko eskubiderik, baita gaitasunik ere. Gazteok gazteontzat sorturiko espazio propioa izango

dugu horretarako, guztion gustuko zitak izango dituen: hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, kontzertuak...". Berba horiekin gonbidatu dituzte gazteak martxoaren 25etik 28ra Laudion egingo duten Gazte Danbada jardunaldira. Txartelak 35 eurotan eros daitezke Oñatiko Ona tabernan.

NISSAN CROSSOVER GAMA BERRIA

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA: ZURE ESPERIENTZIA

Ezagutu zehaztasunaz Bezeroen Promesa Cliente programa hemen: nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialen.

ARABAUTO
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>
Kontsumo mistoa: 3,8-7,3 l/100 km. CO2 emisioak: 99-172 g/km.



Leintz Gatzagako gatz museoa. | MIREN ARREGI

Turismo eskaintza zabala Aste Santurako Debagoienean

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA
Aste Santuko oporretan etxean geratzea erabakitzen dutenek aukera paregabea daukate Debagoienean turismo apur bat egin eta gertuko altxorak ezagutu edo berriro ere bisitatzeko.

Jardunaldi Gastronomikoak
Debagoieneko Jardunaldi Gastronimikoen bueltan, hainbat proposamen turistiko daude. Jakien ekoizpena ezagutzeko baserriak bisitatzeko aukera dago, Lapatza baserrian (Antzuola), Mendibitzun (Aretxabaleta) edo Gomiztegin (Oñati).

Txokolate-zaleendako, berriz, Oñatiko Txokolateixia dago, txokolatearen interpretazio zentroa. Eta gazia nahiago duteneandako, Leintz Gatzagako Gatz Museoa. Asteburu eta jaiegunetan, 12:00etan (euskaraz) eta 13:00etan (gaztelaraz) bisita gidatu bana izaten da.

Natura
Natura gustuko dutenek ezin dute Aizkorri-Aratz parke naturala bisitatzeko aukera galdu.

Ordu aldaketa

Martxoaren 26tik 27ra bitarteko gauean –zapatutik domekara– ordu aldaketa izango da, eta, hain zuzen ere, goizaldeko ordu bietan hirurak izango dira.

Horretarako, Arantzazun dagoen Parketxetik pasa daitezke, informazioz osatuena jasotzeko.

Arrikruzteko kobek martxoaren 24tik 28ra ordutegi berezia izango dute: 09:30-14:40 eta 15:30-19:00. Aurrez erreserba egitea komeni da.

Bestelako bisitak

Oñatin bisita bereziak antolatuta dituzte. Martxoaren 24tik 28ra, Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko, 13:00etan eta 17:00etan. 15 minutu lehenago San Migel errota bisitatzeke aukera ere izango da (zapatuan unibertsitatera bakarrik).

Arantzazuko Santutegira bisitak Aste Santuan egunero izango dira, 10:30ean, 11:30ean, eta 12:30ean.

Elgetan Intxortako ibilbidea egin daiteke, gerra zibilean bertan gertatutakoa ezagutzeko. Aurrez izena emanda.

Bergaran ere hainbat bisita egin daitezke, aurrez eskatuta: monumentuena, lorategi historikoena edota *Errekalderuntz*.

Eskoriatzan, Ibarraundi museoa eta Zubiarte labea zabalik egongo dira Aste Santuan.

Eguraldia kolokan

Pello Zabalak dio asteon sartutako haize hotz poltsek iragarpena baldintzatu dutela, eta datozen egunetan jakingo dela zelako eguraldia izango den.

Gaztetxoendako bereziki prestatutako oporraldia

Ibarreko hainbat herri egitarau berezia prestatu dute Aste Santurako

M.T. | DEBAGOIENA

Eskualdeko herrietan udaberriko opor hauetarako egitarau bereziak prestatu dituzte, 3 eta 17 urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzenduta. Egitarau horien helburua da gazte horiei aisialdia modu aberasgarrian igarotzen laguntzea. Aurtengo jarduerak martxoaren 21etik apirilaren 3ra bitartean izango dira, eta era askotako ekintzak bildu dituzte: irteerak, tailerrak, txapelketak, sukaldaritza... Hala, antolatzaileek ibarreko neska-mutilak animatu dituzte antolatutako ekimen desberdinetan parte hartzera.

Arrasateko eskaintza

Arrasaten, haurrek eta nerabeek egitarau bana izango dute. Hala, haurren kasuan, hiru ludotekek egitarau bateratua prestatu dute. Txikienak martxoaren 30ean sukaldaritzan arituko dira. 31n, berriz, *Altxoraren bila* jolasa egingo dute Santa Barbaran (eguraldi txarrekin, Wii dantza). Apirilaren 1ean, oster, Eskoriatzako tirolinara irteera (eguraldi txarrekin, eskulanak egingo

dituzte naturako elementuekin Okendon). Bukatzeko, martxoaren 31tik apirilaren 1era irteera izango da Lizarrara, eta taldea dagoeneko beteta dago.

Gazte txokoak ere hainbat ekintza antolatu ditu. Martxoaren 19an eta 20an kostaldera irteera egingo dute. Paitballean arituko dira Lasturren, eta han egingo dute lo. Martxoaren 29an, mahai jolas erraldoiak izango dituzte, eta hurrengo egunean, hilaren 30ean, batido naturalak egiten ikasiko dute.

Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, arratsalde, *Gazte extrem* kirolarekin lotutako probak egingo dituzte Monterronen edo Monteazpin. Bukatzeko, apirilaren 2ko eta 3ko ekintzak gazteek eurek aukeratuko dituzte.

Bergaran

Bergarari dagokionez, Xabalote gaztelekuan asanbladarekin hasiko dute egitaraua, martxoaren 21ean. Hurrengo egunean, *Instantlean* argazki lehiaketa egingo dute. 23an, berriz, sukaldaritzan arituko dira, krepeak egiten.

Martxoaren 30ean eskulan tailerra izango dute, eta 31n mahai-futbol eta frontenis txapelketak, azken hau Zabalotegiko frontoian. Apirilaren 2an irteera bat egingo dute, eta bukatzeko, 3an karaokean arituko dira.

Udaberriko 'Gaztekonkis'

Martxoaren 21ean eta 22an egingo dute udaberriko *Gaztekonkis* Aretxabaleta eta Eskoriatzako neska-mutilek. Parte hartu nahi dutenek bost eta zortzi pertsona bitarteko taldeak osatu beharko dituzte, eta talde mistoek puntuazio altuagoa izango dute.

Hala, *Gaztekonkis*-en baitan, martxoaren 21ean egun osoko mendi irteera izango da, eta ibilbidean zehar hainbat proba egingo dituzte gaztetxoek.

Hurrengo egunean, berriz, hilaren 22an, herrian, Aretxabaletan, *Gaztetxek* sukaldaritza saioa izango dute. Goizeko hamaiketan hasita, ginkana egingo dute bazkarirako osagaiak eta tresnak lortzeko. Ondoren, bazkaria izango da eurek prestatutakoarekin, eta segidan tonbola.



JOKIN BEREZIARTUA

Lanbide Heziketaren erakustokia

Arrasaten, Kultureteko klaustroan, eskualdeko zazpi ikastetxetako Lanbide Heziketako zentroak eta beste zenbait erakunderen eskaintzak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da asteon, zazpigarren *Goiaz!* azokan. Lanbide Heziketak hezkuntzaren, enpresaren eta gizartearen arteko zubi-lan "oso garrantzitsua" egiten duela nabarmendu dute.

Arantzazura martxa egingo dute bihar, Erramu Zapatu eguna

Urtero lege, bihar, Erramu Zapatu eguna, ehunka fededunek Arantzazuko ibilbidea egingo dute, Donostiako Elizbarrutiak antolatuta. *Errukitsuak, zeruko aita bezala* izango da aurtengo leloa, eta Europaren babesa eskatzen diharduten errefuxiatuak izango dituzte gogoan. 09:30ean abiatuko da martxa Oñatitik (ordubete lehenago errepidea itxiko dute), eta eguerdiko hamabietan meza izango da Arantzazuko Santutegian. Oinez joan ezin dutenendako autobus bat izango da, meza ordurako iritsiko dena.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Martxoaren
17tik 19ra
arte
Aitaren Egun
zoriontsua

Kirolerako arropan eta oinetakoetan, gizonentzako kolonietan eta bidaiatzeko maletetan



20%
deskontua

Kubatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen %20 EROSKI Club bartelean. Kopuru hau hurrengo erosketan erabili ahal izango duzu.

ZABALIK



JOSEBA GABILONDO MARKES
goiena.eus/komunitatea/

Eguneroko mozerro eta maskarak

Fan jaku Karnabalak. Eta esan leike badiela, zelanbait, identidade jolas bat. Gustoko daukogu beste pertsonaje baten papela jolastia, antzeztia. Egun batez maskara baten atzien bakoitza dana gorde eta igual egunerokotasunien erakustera ausartzen ez garen aspektuak erakusten dittugu. Lotsa alde batera ixten dogu.

Baiña, tamalez, askotan ez dittugu maskara eta mozeruak Karnabaletan bakarrik janzten. Egunekotasunien be mozeratzen gare, baiña, Karnabaletan ez moduen, gure alde ezkutua da gor-detzen doguena maskararen atzien.

Alde ezkutu hori izen leike aspektu bat zein lotsatu egitten garen edo ez dauen ondo ikusi-tta jendartien.

Normatik urteten dan jarre-ra, praktika edo pentsamendu bat izen leike. Izen be, ondo ikasi dogu ezarrittakotik ez urte-tiaren lekziñua. Beldur gare bestien juiziñuei, zer esango ote dauen. Hein baten, geuk be ber-diña egitten dogu-eta, epaille papela hartuta.

Baiña jarten dogu bestelako maskararik be. Gure barneko emoiño eta sentimenduak babesteko. Babesteko? Ala ezkutatzeko? Hain gare batzutan lotsati edota beldurti, nun kolorez bete-tako gure barniak maskara zuriz zuriketan dittugun. Nik neuk askotan janzten dot maskara zuri hori, askotan kendu eziñien nere izaerari gogor pegauta egon arte.

Badaukogu –batzuk– bai lan dexente eguneroko mozerro eta maskara horreik gainetik kentzen. Horretarako, laguntza eska-tzerik bada, eta eskertzekua eskatu barik datorrenien.

Horregatik, egin deigun gure bizitzan barrenak eskatzen duskuna. Bete deigun bizitza gure barneko milla koloriekin. Izen gaittezen libre eta anitz. Ez deigun epaitu janzkera edo jarrera. Urten gaittezen normetatik. Izen gaittezen arraro! Besarkatu eta muxukatu deigun gure hurbillekua. Adierazi lasai sentimenduak! Apurtu deigun gure eguneroko mozerro eta maskarak.

USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.eus

Ateak zabaldu elkartasunari

Europako Batasuna mugak ixten dabilen honetan, herri-tarrek ateak zabaldu dizkiete elkartasunari. Errefuxiatuen arazoan beste aldera begiratu du Europak, eta akordio injustu eta lotsagarria sinatuko du egunotan. Horren aurrean, zer egin dezakegu herritarrok? Beharbada, ezer gutxi. Hala ere, herritar talde handi batek gure esku dagoena egitea erabaki du. Hotz elkarteen bitartez elkartasuna adierazten dabil-tza errefuxiatuei; laguntza humanitarioa jasotzen dabil-tza erre-fuxiatuei bidaltzeko. Biba zuek! Lerro hauen bitartez, elkartasu-na adierazi nahi diet errealitatea bertatik bertara jasotzen dabil-tzan kazetariei; tartean, Ane Irazabal arrasatearrari.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Zer justizia euskararentzat?

Eñaut Muxika Olasagasti

(AEDko lehendakaria)

Arrasate

Urteak daramatzagu Arrasateko Bake Epaitegian euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzen direla salatzen eta EAEko Justizia Administrazioari egoera aldatzeko neurriak eskatzen.

Ahalegin horiek hutsal samarrak izan dira, ordea, hein batean bertako langile batzuek uko egin izan diotelako euskaraz trebatzeari eta lan egiteari.

Duela urte eta erdi, oztopo gehien jartzen zituen langilea lantokiz aldatzera zihoala jakinik, gutun bat igorri genion Herri Administrazio eta Justiziako Sailburuari Arrasateko Bake Epaitegian hutsik geratuko zen idazkari kargua euskaradun batek bete zezan bere eskumen eta bitarteko guztiak balia zitzala eskatuz. Eskaera Arrasateko Euskalgintzako hamabi erakundeok sinatu genuen eta

Udalak ere eskaera bera igorri zion, bere aldetik. Ez genuen, ordea, erantzunik jaso eta euskara ulertzeko ere gai ez den batekin bete zuten lanpostua.

Iazko maiatzean, berriz, Espainiako Justizia Ministerioak Errolda Zibileko zerbitzuak berrantolatzeke asmoa iragarri eta gero, galdera batekin zuzendu gintzaizkion sailburuari. Jakin nahi genuen ea zein esku-hartze izan zezakeen Eusko Jaurlaritzak Espainiatik zetozen asmoak gauzatuz gero ordu arte tokian tokiko Bake Epaitegiek ematen zituzten zerbitzu horiek euskaraz jasotzeko eskubidea bermatua gera zedin.

Uztailean, erantzunik ez genuela ikusirik, Justizia zuzendariarengana jo genuen, sailburuak baino aukera gehiago izan zezakeelakoan erantzuteko. Tira, ba, ezta horrela ere.

Badakigu esku artean daukagun gaia ez dela Justiziak erantzun beharreko larriena. Baina, hala eta guztiz ere, kargu publikoak herriaren zerbitzura daudelakoan gaude

eta horrelako erantzun ezek gutxiespena besterik ez dutela erakusten.

Honenbestez, gertatutakoa publiko egitea erabaki dugu.

Kaleratzea merezi duela uste dugulako eta Justizia Administrazioak, agian, hedabideen bitartez jasota erantzuteko jarrera har dezakeelako, zuzenean igorritakoekin ez bezala.

Errusiar mendia

Mikel Arantzabal

Eibar

Horixe bera da Reala. Horixe da talde txuri-urdinaren errealitatea.

Entrenatzaileak aldatu eta aldatu, baina ezer ez da aldatzen taldean, jokoan.

Gaur sekulako partidua egin, hurrengoan bost gol jaso, gaur jolastu, bihar jokatu...

Nor da erruduna?

Zuzendaritza? Aperribai?

Loren eta konpainia? Jokalari batzuen jarrera?

Bada, horien guztien erru zatia batuta, errusiar mendia da emaitza.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otarora lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabier Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Oxel Arrieta, Aitor Lagoma, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala




Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza

diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA

ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

HERRIAK

ARETXABALETA

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Pausoz pauso, lan eta lan, 70 urte beteko ditu aurten Aretxabaleta kirol elkarteak. Zuzendaritza batzordeko kideek, kirolariekin ez ezik, herritar guztiak batera ospatu gura dute urteurrena, "UDA herri sentimendu bat" delako.

UDA izenik ere ez zuen 1946ko irailaren 15ean lehen partidua jokatu zuen talde batek, Juventud Deportiva Aretxabaletak. Hurrengo urtean, 1947ko martxoaren 15ean, sinatu zituzten elkartearen estatutuak, eta Aretxabaleta kirol elkartea eratu zuten. Herritik sortutako elkartea izanik, kirolek harantzagoko ekitaldietan parte ere hartu izan du. 1947tik 1970era bitartean Andramaixak antolatatu zituen, jai dotoreak antolatu ere.

900 bazkide, 420 kirolari

Futbol taldearen bueltan sortutako elkartean futbolak indar handia izan du beti. Baina pilota ere ez zen atzera geratu sasoi hartan. Geroago sortu ziren ondorengoak: mendi saila 1947an eta txirrindularitza eta atletismoa 1948an. "Pilotak, atletismoa eta txirrindularitzak izugarritzko indarra izan zuten hainbat urtetan, eta kirolari bikainak sortu ziren", jakinarazi dute zuzendaritza taldeko kideek. UDAk, hain zuzen, hartu zuen Andramaixetako txirrindulari lasterketaren ardura 1948an. "Lasterketa hori 1932an egin zen lehenengoz, eta Espainiako Itzulia baino zaharragoa da", diote.

Sail horietako batzuk desagertu egin dira urteotan, eta beste batzuk sortu; areto futbola, karatea eta gimnasia erritmikoa, esaterako. Hala ere, sasoi baten izandako sail haiek ez dituzte erabat ahaztu gura, eta horren adibide da Dorletako Ama txirrindularitza eskolarekin elkarlanean jarduteko agertu duten gogoa.

Gaur egun 900 bazkide inguru ditu, eta 420 kirolari: futboleko, 350; areto futboleko, 20; pilotan, 36; karatean, 20; eta gimnasia erritmikoan, 30. "Futbol talde nagusia hirugarren mailan egotea ez da nolanahiko lorpena, baina, era berean, handiak dira areto futbolekoek Euskal Ligan jokatzeko eta

UDAk 70 urte: iragana oroitzuz etorkizuna lantzen



1972ko pilotariak, 1954ko ziklokros txapelketa, 2014-2015 denboraldi aurkezpena eta zuzendaritza taldea. | ARITZ GORDO, M.A. ETA UDA.

karatekek lortzen dituzten garaien guztiak", diote. Eta azken urteotan ahalegin berezia egiten dabilta emakumeen kirola sustatzeko: "Plan estrategikoko ildo nagusietako bat da emakumeen inplikazio eta presentzia areagotzea kirolean. Horren erakusgarri dira frontenis txapelketa antolatzea, areto futboleko taldea sortzeko ahalegina eta gaztetxoekin futboleko egiten gabiltzan lana".

Armarria eta ereserkia berriak

Abendura bitartean ekitaldi mordoa egingo dituzte, hilabete guztietan bat edo beste. Eta nobedadeak ere iragarri dituzte: ereserkia berriak egingo dute herriko hainbat musikaririk; armarria berria ere iragarri dituzte, "haren garrantzia agerian uzteko". Iragarritako ekintzez gain, sail bakoitzari dagozkion ekitaldi bereziak ere egingo dituzte.

Data garrantzitsuenak

Kirol elkartearen 70 urteko ibilbidean zeresan handia izan duten hainbat data:

- 1946:
 - Lehen futbol partidua jokatu.
 - Pilota sailaren sorrera.
- 1947: Mendi sailaren sorrera.
- 1948:
 - Txirrindularitza sailaren sorrera: Andramaixetako lasterketaren ardura hartzea.
 - Atletismo sailaren sorrera.
- 1952: Ziklo-krosaren lehen edizioa.
- 1971: Leixargarateko aterpetxearen inaugurazioa.
- 1974: Dorletako Ama txirrindularitza eskolaren sorreran parte hartzea.
- 1975: Eskubalo sailaren sorrera.
- 1979: Ojala Zelaiko lehenengo krosa antolatzea.
- 1987: Saskibalo sailaren sorrera.
- 1990: Emakumeen futbol taldearen sorrera.
- 1995: Belar artifizialdun futbol zelaiaren inaugurazioa (emakumeen futbol taldeak).
- 2005: Aretoko futbol sailaren sorrera.
- 2007: 1998an sortutako karate taldea UDA barruan sartzea.
- 2008: Gimnasia erritmiko taldea UDA barruan sartzea.

EGITARAUA

MARTXOA

- Urteurrenaren hasiera.
- Armarria berritzeko lehiaketa deia.

APIRILA

- Saiheski dastatzea.
- Gizonezkoen 24 orduko frontenis txapelketa.

MAIATZA

- Gipuzkoako areto futboleko maila guztietako finalak.

EKAINA

- Kirolez busti ekimena.
- Armari lehiaketaren sari banaketa.
- Ibarako paretak grafitiekin apaintzea.
- UDAko historikoen afaria.

UZTAILA

- UDAko beteranoren arteko partidua.
- Kuadrillen arteko futbol txapelketa.
- Udako futbol campusa.

ABUZTUA

- Andramari jaietako 78. txirrindulari lasterketa.
- Andramari jaietako pilota partidua.

IRAILA

- UDaren ereserki berriaren aurkezpena.
- Kirolarien denboraldi aurkezpena.
- BTT martxak.

AZAROA

- Frontenis txapelketa mistoa.
- Buzkantz dastatzea.

ABENDUA

- 70 urteotako historiaren erakustaldia.
- Futbol eskolako Bixente Etxeandia txapelketa.



Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



Ruiz de Munain (Harreman), Ubarretxena (alkatea), Etxenausia (Harreman) eta Aldai (Hotz Elkarte). | MIREIA BIKUÑA

Siriarrei premiazko laguntza emateko deia

Eroskiko Harreman dendan jasoko dute materiala datozen lau zapatuetan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Siriako errefuxiatuen egoera lagarria albiste den egunotan, siriarrei laguntza emateko kanpaina ipini du martxan Harreman gobernuz kanpoko erakundeak, Udala-

ren babesarekin eta Bergarako Hotz elkartearen laguntzarekin. Aurretik, Haitirako eta Filipinetarako materiala batzeko kanpainak abiarazi zituzten, eta orain, Siriara bideratuko dute materia-

la. Bergarako Hotz taldeak bideratuko du jasotakoa Sirian behar-beharrezkoa den lekuetara. Mantak, lo-zakuak, muletak eta umeendako motxilak batuko dituzte martxoaren 19an eta 26an

eta apirilaren 2an eta 9an; Eroskiko Harreman dendan egongo dira, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etara eta 20:00etara. Bestalde, martxoaren 22an eta 29an eta apirilaren 5ean eta 12an, Harremanek Ferreriasen duen dendan ere jasoko dute materiala. Kanpaina apirilaren 12an amaituko da.

Ekarpen ekonomikorako deia

Materialaz gain, bereziki dirua eskatu dute, "unean uneko beharrei" erantzun ahal izateko. Horretarako, lau kontu korrante zabaldu dituzte: Laboral Kutxan (3035 0001 53 0010132964), La Caixan (2100 1972 03 0200112601), Rural Kutxan (3008 0253 49 2793534526) eta Kutxabanken (2095 5055 50 9115887960). Materiala batzeko kanpaina bukatu ostean ere zabalik egongo dira kontu korranteak.

Harreman elkartekoek, ohi dutenez, materiala behar dutenei helduko zaiela bermatzen ahaleginduko dira: "Horrela egin izan dugu kanpaina guztietan", adierazi zuen eguazteneko agerraldian Cristina Etxenausiak.

Maria Ubarretxena alkateak asko eskertu du Harremanek egindako kanpaina eta herritarrei dei berezia egin die: "Arrasatearrei mesedez eskatzen diegu inplikazio aktiboa izan dezaten kanpaina honetan". Batutako materiala Siriari laguntzeko Madrilen lanean diharduen taldearen bidez bidaliko dute eta jasotako dirua, berri, Mugarik Gabeko Medikuak erakundearen bidez kudeatuko da.

Alfonso VIII kalea berriro urbanizatuko dute aurten

J.B. | ARRASATE

Takolo-Goiru proiektuaren beste fase bat gauzatuko da aurten, Alfonso VIII kalea berrurbanizatzearena. Udalak espero du obra urte bukararako amaitzea; 15 aparkaleku berri sortuko dira, gaur egun dauden 15 aparkalekuez gain. Era berean, Bedoñabe Herri Eskolarako autobus geltoki "aproposa" egingo dute.

Obrarako esleipen prozedura ireki dute dagoeneko eta aurrekontua 512.722 euro da. Esandako moduan, proiektuaren helburua da Takolo eta Goiru artean, antzinako GI-2620 errepidearen zeharbidea berriro urbanizatzeako proiektuaren G faseari dagozkion obrak egitea. Lanez arduratuko den enpresak lau hilabete izango ditu obrak amaitzeko.

Bertan behera geratu da bihar egitekoa zen baserritarren azoka

Bihar Bergaran egingo den Erramu Zapatuko feriara hileko hirugarren zapatuko azokan saltokia jartzen duten hainbat baserritar joango direnez, Udalak erabaki du martxoko azoka bertan behera uztea. Kontuan hartu behar da joan den zapatuan ere emakume baserritar eta artisauen azoka egon zela.

Abian prozesuko bigarren bilera bihar Kulturaten, 10:00etan

Ezker Abertzaleak arrasateararako deitu du bihar Kulturateko areto nagusian (10:00) egingo den Abian prozesuko bigarren saioan parte hartzeko. Proiektu politikoa, eskaintza independentista, taktikaren garapena, gatazkaren konponbidea eta antolaketa izango dira eztabaidagaiak. Azken saioa, apirilaren 16an.

OHARRAK

1972AN JAIOTAKOAK

Apirilaren 16an elkartuko dira kinto bazkaria egiteko. Aldape jatetxean bazkalduko dute; 13:00etan Seber Altube plazan elkartuko dira. Izena eman behar da apirilaren 11 baino lehen; ezinbestekoa izango da honako kontu korrante zenbaki honetan 50 euroko ordainketa egitea aldeztu aurretik: 3008 0253 4325 1545 4813 (Rural Kutxa).

Ikasleak aktore eta ikusle, antzerki jardunaldietan

Apirilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an talde profesionalen antzezlanak ikusiko dituzte Amaian

J.B. | ARRASATE

Martxan dira eskola antzerki jardunaldiak. Udaleko Hezkuntza Sailak eta herriko ikastetxe guztiek beste urtebetez antolatuko dute ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzea helburu duen ekimena. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek hartzen dute parte. Egitasmoak hiru

fase ditu. Lehen fasea martitzenean gauzatu zuten, ikasleen antzezpenekin. Bigarren fasean, ikasleek antzerki talde profesionalen emanaldian izango dituzte Amaia antzokian, apirilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an. Obrak hauek izango dira, hurrenez hurren: Eidabe taldearen *Futbolariak eta printzesak*, Txalo Produzioak-en *Magia lapurra*, Borobil taldearen *Ali Baba eta 40 lapurrak* eta Parai-



Martitzenean ikasleek antzeztutako obra baten amaiera. | JOKIN BEREZIARTUA

so taldearen *Nomadak*. Amaitzeko, jardunaldien hirugarren fasean, Lehen Hezkuntzako ikasleek Amaia antzokira bisita egingo dute, instalazioak modu didak-

tikoan ezagutu ahal izateko; maiatzaren 2an, 3an eta 4an izango dira bisita gidatuak Andoni Zubiaga antzokiko arduradun teknikoaren eskutik.

1975ekoan kinto ospakizuna, giro ederrean

100 bat lagun elkartu ziren aurreko zapatuan. Kurtzetxikira pertsona bakar bat igo bazen ere, alde zaharreko bisita gidatua "talde polita" elkartu zen. Gero, Monterronen atera zuten talde argazkia eta ondoren Garaiaiko jatetxean bazkaldu zuten.



SERGIO AZKARATE

Inoizko eskaintzarik zabalena udalekuetarako

Udaleku irekietan zein itxietan izena emateko epea apirilaren 4an zabaldu eta maiatzaren 13an itxiko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Txatxilipurdik asteon aurkeztu ditu 2016ko udaleku irekiak eta itxiak, inoizko eskaintzarik zabalenaekin. Bietan izena emateko epea apirilaren 4an zabaldu eta maiatzaren 13an itxiko da; prezioak mantendu egin dituzte oro har. Udaleku irekiak, herri barruan egiten direnak, uztailearen 4tik 22ra izango dira. Arrasateko hiru gunetan izena emateko aukera egongo da, urtero moduan: Musakolan, erdigunean eta San Andresen. Aurtengo nobedade nagusia da asteka eman ahalko dela izena: hiru astetan beharrezan aste baten edo bitan ere hartuko ahalko da parte. Urtez urte eskaera gehiago izan dituztelako proba moduan eskainiko dute aurtun.

Udalekuak, "egun magikoak"

Bestalde, Euskal Herriko txoko ezberdinetan ospatzen diren udaleku itxien eskaintza batxilergo-ra arte luzatu dute, 17 urtera arte. *Gure kabuz!* deitu dituzten



Txatxilipurdiko ordezkariak eta hezitzaileak martitzeneko agerraldian. | J.B.

udaleku horietan, Txatxilipurdik planteamendu bat badu ere, nerabeak izango dira nolako udalekuak gura dituzten erabakiko dutenak.

Udalekuak "estrategikoak" dira aisia euskaraz eta modu hezitzailean eskaintzen duen elkar-tearentzat: "Egunerokotasunetik irteten gara eta askatasun egun ederrak bizi izaten ditugu. Gure

helburua da eurek zein guk bizi-tzako egunik onenak pasatzea, eta, hori lortzen badugu, helburu hezitzaileak lortzeko eta balioak lantzeko testuinguru ezin egokia-goa lortuko dugu. Egun magikoak dira guretako, eta saiatzeko gara ume eta nerabeendako ere egun magikoak izaten", dio Txatxilipurdiko Lander Juaristik.

Judoaz gozatzen, helburu solidarioak aintzat hartuz

Desoreka klubak janaria batu du elikagai bankurako



Uarkapen egindako topaketaren une bat. | DESOREKA JUDO KLUBA

J.B. | ARRASATE

2013an sortutako Desoreka Judo Klubak topaketa berezia egin zuen joan den zapatuan. Antolatzaileen arabera, 200 judoka inguru elkartu ziren Uarkape pilotalekuan, eta, askotariko erakustaldiez gain, Bergarako elikagai bankurako 200 bat kilo janari batu zituzten: "Umeek zein nagusiek judoarekin gozatzeaz gain, inguruan arazoak dituztenei laguntzen saiatu gara", adierazi dute Desorekakoek.

Antolatzaileak oso pozik gertatu ziren lehen topaketa bereziarekin: "Giro ikaragarria, ilusioa, elkartasuna, parte-hartze handia, gurasoen eta kirolarien inplikazioa, izerdiak, ametsak egia bihurtzeko gogoa... Denetarik izan dugu". Klubak ibilbideari hasiera eman dio, horrenbestez, etorkizunerako "ilusio handiarekin".

NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA



Talde sena

Fan dan zapatuen hamasei lagun alkatu gizen bazkari pasada bat egitteko. Hola esanda, bateron batek pentsau leike berien Gabonetan jente gehixau alkarketan dala eta ez dala lau haixetara esateko moduko gertakizune.

Kontue da hogeita hamar urteren ostien, 85/86 denporaldixan Mondrako jubenilletako ohorezko maillan ibilli gizenok barriro be alkar ikustie erabaki gauela. Orduentzeko argazkixetan urretx makillak letxe fin eta luze agerketan die hamasei-hamazazpi urte bittarteko gazi-tiek: inddartsu, kementsu, edozein erronkari aurre egitteko prest dauzen jokalarixek.

Hareikin batera eta bakotxa alde baten, bibote eta bizarraz Iñaki Galdos eta Iñaki Zeziaga entrenatzailliek dauz. Mahai inguruen eztabaidie sortu da: argazkixe Tolosan egindakue dan, Easoren kontra irabazi gauenekue dan, gola Iñaziok sartu euen...

Bazkaldu eta gero, hogei-ta hamar urte lehenau ataratako argazkiko lekuek hartu eta beste barri bat atara dogu. Gerri buelta, betaurreko, aulki gupildun, muleta eta burusoil guztixen gainetik argazkixari ondo erreparau ezkerro, urretx makillak letxe fin eta luze dien hamasei urteko gazte inddartsu ikusten dittut neuk oraindik be.

Iñaki Galdos eta Iñaki Zeziaga *Divino*-ri eskerrik asko, errespetue, laguntasune, hobetzeko griñe eta sakrifiziue moduko baloriek erakustiarren.

"Edozein erronkari aurre egitteko prest dauzen jokalarixek"

Emakume Txokoaren apirileko ikastaroetan izena emateko aukera

Emakume Txokoak aditzera eman duenez, lekua dago oraindik honako ikastaro hauetan izena emateko: *Artearen bidea, sormena jabetzeko estrategia; Lipdubeatzen, musikaren bitartez gure burua adierazten; eta Nordic walking*. Hiru tailer horietan izena emateko azken eguna martxoaren 23a da; interesatuek, Emakume Txokora jo (943 79 41 39).

"Mozal ordenantzaren aurkako" agerraldia gaur

J.B. | ARRASATE

Martxoaren 22ko osoko bilkuran onartzekoa den garbiketa ordenantzaren aurkako elkarretaratzea deitu dute hainbat eragilek gaurko, Herriko Plazan (19:00); aldarrikapen pankarta eta karteekin joateko dei egin dute, moratoria eskatzeko. "Mozal ordenantzaren kontra" protesta egingo dute, hainbat puntu adierazpen askatasunaren kontra doazela iritzita.

AED elkarteko zuzendari-tzak, esaterako, prentsa oharra kaleratu du asteon. Espazio publikoaren zaintza eta garbitasuna arautuko duen ordenantza bat "beharrezko" ikusten badute ere, testuan jasotzen diren "hainbat neurrik" adierazpen askatasunari kalte egiten diotela uste dute: "Modu kaltegarrian eragiten diote adierazpen askatasunari eta herriko eragileon eguneroko lanari. AEDk, testua onartzen bada, alegazioak aurkeztuko ditu horretarako epea irekitzen denean; agerraldian izango gara, nahiz eta ez dugun bat egiten eragileek Udalarari luzatu dioten eskaerarekin".

Bestalde, joan den aste bukaeran, Udalak zentsura aplikatzen duela dioten kartel "iraingarriak" agertu ziren berriz: "Elkarbizitzaren, elkarren arteko errespetuaren eta iritziz aniztasunaren aurkako erasoa da", esan du Udal Gobernuak.

'Arrasasoi' ekimena, hilero kirol jarduera berezi baterako aukera

Astelehenean abiatu zuen Udaleko Kirol Zerbitzuak *Arrasasoi*, kiroldegiko abonatu-ekimena, hilero kirol jarduera berezi bat doan eskaintzeko ekimena. Lehen jarduera abdominalak lantzeko da -hurrengo saioa martxoaren 22an izango da, 07:30etik 09:00etara-, bizkarreko minak ekiditeko. Argibide gehiagorako, kiroldegiko harrerara jo (943 77 16 77).

Elkarretaratzea eta argazki lehiaketa arrazakeriaren aurka

Martxoaren 21erako, Arrazakeriaren Aurkako Egunerako, elkarretaratzea antolatuko dute Udalak, Ekin Elkarteak eta Elkarheztzen taldeak; Herriko Plazan izango da, 19:00etan. Gainera, *Aniztasunean elkarrekin bizi* lelopean, argazki lehiaketa ere antolatu dute; lanak bidaltzeko azken eguna martxoaren 23a da. Informazio gehiago: 651 70 79 36.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Eduarne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Oralora Lizentziaduna, 14 - 20500 Arrasate
943 04 03 20 - info@belun.com

Ezkontza batek eskatzen duen dena, toki bakarrean: Belun

Horrelako egun berezietarako egin beharreko eta prestaketa guztiak utz ditzakezu gure esku, data seinalatura arteko bidea ez dakizun neketsu egin.



'Wedding planner': ezkontzaren antolaketa



Argazkilaritza

Zuen ezkontzaren antolaketan parte hartzea plazer handia izango da guretzat: *wedding planner* zerbitzua eskaintzen dugu. Elkarlanean arituko gara; zuek gauza politetz arduratuko zarete, utzi buruhausteak gure esku. Behar duzuen guztian eskainiko dizuegu aholkularitza.

Egun bakarra izango da, eta zuen eguna izatea nahi duzue. Ez dadila ospakizun huts bat izan, bion izena daukan eguna baizik. Begietara begiratu eta emozioz bustitzen direla ikustea, irribarrez lehortzea, dantza egunsentiraino egitea, maite duzuen jendez inguratzea.

Gainontzeko guztia gure esku utzi, ezkontza eguna iritsi bitartean zuen bide-lagun izango gara. Elementu guztien diseinuaz arduratuko gara, apaingarriez...; hornitzaileen kudeaketa guztia eramango dugu (jatetxea, *catering*-a, musika, animazioa, loreak...): zuen eguna nolakoa izango den zehaztu eta ezerk kale egingo ez duela ziurtatuko dugu.

Ezkontza une ahaztezina izatea eduki ohi dugu denok helburu, baina hain egun garrantzitsurako behar diren gauza guztiak antolatzea eguneroko bizitzarekin uztartzea zaila izaten da askotan. Horregatik, Belun izango da zuen erreferentzia-puntua. Bikote, disfrutatu, utzi ardurak Belunen esku.

Ez izan beldurrik, ematen duena baino errazagoa da eta. Aurretik ezagutuko dugu elkar, eta sinetsi diezaguzue, dibertitu egingo gara. Kameraren atzean bi neska gazte gaude, eta gure profesionaltasuna zuen gustu eta nahietara egokitzeko guztiz irekita gaituzue.

Ezkontza argazkiek edozein argazki ezin dutelako izan, zuen istorioa, zuen izaera islatuko dugu argazkien bidez. Eta, noski, emaitza hori lortzeko ezinbestekoa da aurretik elkar ezagutzea, bikotearen gustuak zein diren jakin ahal izatea guk... gidoi bat osatu eta zuen benetako istorioa

argazki bidez kontatu ahal izateko. Ezagutzeak elkarri konfiantza ematea ere badakar, eta hori garrantzitsua da, baita ere, bikoteak bere izaera eta gustuak naturaltasun osoz azalerazteko moduan argazki saioetan lasai egon zaitezten ere, gustuko giroan; hori ere islatu egiten da-eta gero erretratuetan.

Mimo handiz egingo dugu lan, aurretik, egunean bertan eta emaitza esku artean izan arte; noski, eta beti zuen iritzia oso kontuan izanda: azken emaitzarekin gu gustura gera gaitezen, eta, garrantzitsuena, zuek ere bai. Azken finean, zuen oroitzapenekin batera argazkiak izango direlako bikotearentzat hain berezi izango den egunaren lekukotza.



Gonbidapenak eta paper gauzak



Opariak

Gonbidapena %100 pertsonalizatzeko aukera. Nahi duzuen formatuan, digital... Ez duzue bat berdina ikusiko! Ezkontza eguna zeuenagoea egitea nahi baduzue, bertan egongo diren elementu guztiak zuen nortasunez zipriritintzeko aukera ere badago.

Seating-ari, menuari, *photocall*-ari... denari eman diezaiokegu zuen kutsua, eta batasun itxura, aldi berean, diseinu ezaguri berak emanaz elementu guztiei; eta, nola ez, baita gonbidapenei ere.

Erabat pertsonalizatutako gonbidapenak egingo dizkizuegu; baina ohikotik

harago, formatu berritzaileetan ere egiten ditugu gonbidapenak. Gonbidapena bideo baten bidez egingo zenuketela, adibidez? Bada, egingo dizuegu. Eta bideoak egite-rakoan, aukera denak posible, zuen gustura hau ere: gu beti ideiak emateko eta proposamenak egiteko gertu. Gero, gonbidapena gaur eguneko sareen bidez -WhatsApp, e-posta...- zabaldu, eta listo!

Zuen ezkontza eguna ospakizun bat, jai bat, izan dadin nahi baduzue, egokitu ezazue dena zeuen gustura: zuen jaia izango da, zuen gertukoenekin konpartituko duzue, eta gonbidapenaren momentutik beretik ulertuko dute haiek nolakoa irudikatzen duzuen zuen egun handi hori, ze giroan ospatu nahiko zenuketen.

Ez eskatu katalogorik, ez daukagu eta. Behin zuek ezagututa aurkituko dugu mahai gainean geldituko ez den opari hori. Zerbait funtzionala, originala, aurrekontura egokitzen dena, aurreko ezkontzetan ikusi ez duzue... eta ez, ez da mahai gainean gertatuko.

Gaur egun, opariak, oroitzapenerako baino gehiago dira esker onerako: eskertu diezazue opari batekin zuen senide edo lagun horri zuentzako hain garrantzitsua den egun batean han egon izana.

Eta izan dadila opari probetxugarri bat: bonboi batzuk, xaboi natural bat,

bidezko merkataritzako produktu bat... Ze, opari bat egitearekin batera badago keinu polit bat edukitzeko modua ere; hori da beste aukera bat.

Gure hornitzaileak ditugu, eta bikote motaren arabera eta opariak izatea nahi duten zentzuaren arabera aukeratzen dugu gauza bat edo beste, mota bateko edo beste oparia. Seguru egon zaitezke; hala nahi baduzue, aurretik beste ezkontza baten ikusi gabeko oparia topatuko dugu zuen gonbidatuentzat, beti zuen aurrekontura egokituta.

Hain egun berezian eurak zuekin egon izana opari baliotsu jotzen duzuela adierazteko, esker onez, zerbait berezia euren tzako ere, gogoz hartuko dutena.

Laboratorium museoko udaberriko programazioa ekintzaz beteta dator

'Loreak asmatzen' erakusketa gaurtik aurrera izango da ikusgai museoan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Udaberri garaian beste erakusketa bat izango da Errekalde jauregiko Laboratorium museoan: *Loreak asmatzen: naturzale europarrak Euskal Herrian*. Gaurtik uztailaren 10era arte izango da ikusgai. 19:00etan inauguratuko dute. Zumalakarregi museoaren eta Foru Aldundiaren laguntza izan dute.

XIX. mendean Euskal Herrian izan ziren bi landare-zalaren lanetan oinarritzen da. Pietro Bubani italiar botanikoa, bizitza Piriñoiako landareak aztertzen eman zuena; 1853an izan zen hura Bergaran. Eta Didier Petit de Meurville, 1857tik aurrera Frantziako kontsula Donostian, bere zaletasunen artean pintura eta landareekiko maitasuna elkartu zituen, zeinaren emaitza Gipuzkoako florari eskainitako hiru album izan ziren; Petit de Meurville 1866an egon zen Bergaran, eta orduko bi marrazki ikusi ahal izango dira.

Bestalde, *Eubalaena glacialis* balearen hezurdura izango da

ikusgai pieza gonbidatuaren gunean.

Natura Eguna domekan

Egitarauaren lehen jarduera domeka honetan egingo duten Natura Eguna izango da, Pol-Pol mendizale taldearekin, Lokatza ziklismo eskolarekin eta Mendia Bizirik taldearekin antolatua.

09:00etan Fraiskozuri plazatik abiatuta, oinez igoko dira Gorrara, eta han, natura sustatzeko hainbat jarduera burutuko dituzte; zuhaitz landaketak edota hegazti eta saguzarrentzako babeslekuak jartzea, esaterako. Bukatzean,



Erakusketako panel bat. | ENEKO AZURMENDI

hamarretakoa egingo dute, eta eguerdi aldean Gorrako txirridulari lasterketaren amaiera ikusteko aprobetxatuko dute.

Gorrara autobusez joatea nahiago dutenek herribusa izango dute Burdinaten 09:45ean, eta 13:30ean izango da bueltakoa (1,20 euro).

EGITARAUA

Martxoak 20: Natura Eguna.

Apirilak 15: Topaketa museoan: *Natur Zientzien arloko herritarren zientzia programak eskualdean?*

Apirilak 16: Txangoa: Atapuercako aztarnategia eta Giza Bilakaeraren museoa (Burgos).

Maiatzak 18: Museoen nazioarteko eguna: Zoologia biltegira bisitak.

Maiatzak 21: Geocaching ikastaroa.

Ekainak 4: Marrazketa zientifikoaren inguruko topaketa.

Ekainak 16: Hitzaldia: Aldaketa klimatikoaren eragina Euskal Herriko landare paisaian.

Uztailak 8: Saguzar gaua.



IRATIELORTONDO

Txartelak banatzen

Udala dagoeneko hasi da apirilaren 18tik aurrera martxan jarriko dituzten hondakin organikoendako eta errefusarendako edukiontzia zabaltzeko txartelak banatzen eta horien funtzionamendua azaltzen.



GORKA URIARTE

Errefuxiatuei babesa

50 pertsonatik gora batu ziren eguazten arratsaldean San Martin plazan, EBren eta Turkiaren artean Europara datozen errefuxiatuei buruz lantzen diharduten akordioari ezetz esateko.

EH Bilduk Seminarioko aretoaren proiektuarekiko "kezka" adierazi du

Udal Gobernuak "markatutako epeakiko" berandu dabilela diote, eta informazio falta salatu dute

M.T. | BERGARA

Josu Elortza eta Leire Iruin EH Bilduko zinegotziek agerraldia egin dute, euren "kezka" adierazteko Seminarioko kultur aretoaren proiektuaren gainean "Udal Gobernuak hartu duen jarrerarekin". "Interesik eza" salatu dute, eta gaineratu dute gainontzeko alderdiei eta eragileei ez dietela informaziorik eman.

Josu Elortza zinegotziak salatu du EAJk eta PSE-EEk osatutako gobernu taldeak kultura partidetan milioi bateko igoera egongo zela aurreratu zuen arren, aurrekontuan jasotzen dela Semi-

narioko aretora bideratutako partida 35.000 eurokoa dela.

Horrez gain, Bergarako Udalak Eusko Jaurlaritzatik aretoa bukatzeko 300.000 euroko laguntza jasoko du, eta EH Bildutik salatu dute Udal Gobernuak "beste gastu batzuetarako" bideratu duela diru hori. Elortzak gaineratu du kulturen ez erabiltzea "lotsagarria" dela.

Bigarren faseagatik arduratuta Leire Iruinek, berriaz, azpimarratu du aurreko legealditik herri-errekin eta kultur eragileekin batera landutako proiektua dela

Seminariokoa, eta nabarmendu du aurreko legealdian bultzatu zenetik gainontzeko alderdien babesa izan duela.

Seminarioko obra nagusia dagoeneko martxan dago, baina salatu du bigarren faseari dagokionez, ekipamenduari, hain zuzen, markatutako epeakiko oso berandu dabilzala. "Ekainaz geroztik ez da ezer ere egin", dio.

Horren ostean, hirugarren fasea etorriko litzateke, non goiko pisuan herritarren erabilerrako gelak hartzen dituen bere baitan. Iruinek adierazi du "kolo-kan" geldituko litzatekeela, permuta atzera botaz gero.

Mahaia eratzeko eskaera

EH Bildutik gobernuari eskatu diote proiektu honen inguruan eragileekin mahai bat eratzeko.

Era berean, salatu dute prentsaren bitartez jakin dutela Udal Pilotalekuan kultur areto handi bat egiteko ideiarekin berri, eta horren inguruan ere mahaia eratzeko eskatu dute.



M.T.

Liburu aurkezpena

Martitzen arratsaldean Ahoztar Zelaieta kazetari eta idazleak *Kutxabank. El saqueo de Euskal Herria* liburua aurkeztu zuen Artatse elkartearen. Herritar askoren interesa erakarri zuen hitzorduak.

Erain Debagoiena ekimenaren baitan bilera irekia deitu dute martxoaren 21erako Irizar jauregian

Martxoaren 21erako, astelehena, 18:30erako bilera deitu du Bergarako Gure Esku Dagok, Irizar jauregian. Erain Debagoiena ekimenari buruzko informazioa eskaini eta ekarpenak jasotzea du helburu. Bestalde, galdeketa aldeko sinadurak biltzeko mahaia jarriko dute Erramu Zapatuan, eta hainbat komertziotan ere badago aukera, baita eguenero Irilan jarriko duten mahaian ere.

Giartzu Estetika Zentroa

Etchez etxeko makillajea

Ezkontzak, jaunartzeak eta egun berezietarako makillajea

www.giartzu.com • tienda@giartzu.com • Tel.: 943 763571

Maite Otaño, Giartzuko makillatzailea



Finalerako protagonistak, sariak jaso ostean. | JULEN IRIONDO

Salaberria eta Ugalde nagusi lau t'erdikoan

JULEN IRIONDO | BERGARA

Gazteetan, final polita jokatu zuten Salaberria goizuetarrak eta Alberdi azpeitiarrak, eta irabazleak (19-22) kontrako 10-0ekoari buelta eman behar izan zion; zenbait sake, Alberdik bukatutako tanto eta Salaberriaren huts tarteko, lan erdiak berehala egin zituen gipuzkoarrak.

Baina Salaberriak ez zuen bururik galdu, eta lanean jarraitu zuen. Lehenengo tantoa egin da, erritmo handia jarri zion partiduari, airea bilatuz eta kontrarioa batera eta bestera mugituz. Eta jokamolde horrek emaitza ona eman zion.

Tanto polit asko izan zituen partiduak. 11. kartoiran joan zen zuzenean Salaberria. Berriz ere Alberdi aurreratu zen, ordea, 14-11. Finalaren bigarren zatian aurreko jokoa eta botekoa tartekatu ziren, eta ez zen alde handirik izan ez batentzat ez besterentzat: 14na, 15na eta 19na berdindu zuten, eta azken hiru tantoak Salaberriak egin zituen.

Nagusien finalean, Ugalde oizartuarra 0-15 aurreratu zen di-da batean. 15 tantoetatik 9 sakez egin zituen. Santxo usurbildarra partidutik kanpo egon zen berandura arte. Erreakzionatu zuen, baina berandu (22-11).

Eibarko Dani Garcia eta Fran Garagartza, eguaztenean Irizarren

Eibar futbol taldeko jokalaria eta kirol zuzendariak hitzaldia egingo dute hilaren 23an Irizar jauregian, 19:30ean. Garagartzak klub armaginarekin kirol ereduaren gainean jardungo du, eta solasaldia egingo dute ondoren.

Calahorrara irteera egingo dute San Joxepeko erretiratuek

Apirilaren 21ean izango da, eguna. 08:30ean aterako dira, autobus geltokitik. Bazkaltzera Nafarroara joango dira: Argedaseko Venecia jatetxean izango da bazkaria. Martxoaren 21etik apirilaren 19ra eman ahal izango da izena.

Gaur bertsoak eta bihar feria, Erramu Zapatuaren barruan

J.I. | BERGARA

Andoni Egañak, Maialen Lujanbiok, Beñat Gaztelumendik, Oihana Bartrak eta Eneritz Artetxek kantatuko dute gaur, 22:30ean hasita, frontoian.

Bihar, berriz, 09:30ean hasiko da feria: abelburuen erakusketa, hegaztiak, euskal labeleko produktuak, makinaria eta artisauak egongo dira. Horiekin batera, goizean zehar, baita musika eskolakoekin trikitilariak eta dantza, euskal hanburgesen dastaketa, txorimalo erakusketa eta zantantzarrak.

14:30ean herri bazkaria egingo da frontoian, eta 17:30ean umeentzako zezentxoak egongo dira Seminarioko patioan.

Erramu Zapatuak aldaketak eragingo ditu aparkalekuetan:

Ibargarai kaleko 4. zenbakitik aurrera ezingo da kotxerik egon zapatuko 06:00etatik aurrera. Fraiskozuri kaleko alde biak, berriz, gaurko 07:30etatik egon beharko dira libre. Trukean, egubakoitz arratsaldean eta zapatuan Ipintza institutuko eta San Martin eskolako jolas-tokietan utzi ahal izango da kotxea. Ibargarai, Fraiskozuri eta Bideberri zirkulaziorako itxita egongo dira zapatu goizean.

Kilometroak 2016k antolatuta, azkenik, umeendako jolasak, txosna, *Demasa* pizzak – Agirrebeña, Ama Mia, Kai eta Etxagikoak – eta kontzertua – Fan & Go – ere izango dira zapatu arratsaldetik aurrera, Aranzadiko jolaslekuan.

Bi bergarar Emusik 2016n

Udazkenean egindako frogen ostean, Bergarako Musika Eskolako bi ikasle Emusik 2016ko azken jaialdian joko duen Big Banderako aukeratu dituzte: Bittor Giral, tronboi jolea, eta Ane Rodriguez, abeslaria, dira.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Pelikuletan bezala!

NW YOUNG LIFE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND

3.995€

HOMESTAY LINGUISTIC



4 aste FAMILIAN Ingeles intentsiboak!

SEATTLE/PORTLAND

3.795€

NORTHERN CALIFORNIA ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + KANPALDIA

SAN FRANCISCO

3.995€

NW ADVENTURE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND

3.995€

MAINE ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO EKINTZAK

LEWISTON/PORTLAND

3.995€

Egonaldia familia batean!
Prezioan dena barne dago!

ADINA:

3. DBHtik
unibertsitate 1. mailara

DATA:
UZTAILEAN

Tel.: 943 22 49 32

www.summerintheusa.com



Ramon Irizar kaleko kantoitik alondegirainoko zatia egokituko dute oinezkoendako. | O.E.

Zirkulazio aldaketa ekarriko dute Atzeko kaleko egokitzapen lanek

Corpus jaien ostean hasiko dituzte obrak, eta sanmigelak hasi aurretik bukatu

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Atzeko kalea oinezkoendako egokitze lanak aurten egingo dira. Lanak atera dira lizitaziora eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren esleitu dira. Asmoa

da ekainean hasi eta irailean bukatzea lanak.

Hiru hilabete eta erdi izango ditu aukeratutako enpresak obrak egiteko. Iraupen hori eta kalea erdigunean dagoela kontuan har-

tuta, herriko bi jai nagusien artean egitea erabaki du udalak; hau da, Corpus jaien ostetik San Migel jaien hasierara. Aurten maiatzaren 29an ospatuko da Corpus eguna, eta, hala, lanak ekainaren

hasieran hasiko dituzte, gutxi gorabehera.

Atzeko kaleko beheko aldea egokituko dute oinezkoendako fase honetan: Ramon Irizar kaleko kantoitik udaletxe osteraino. Baita beste bi kantoietan ere: Ene Bada dendetik Atzeko kalera doana eta Kirrinenekoa. Lanak egin ostean, kalearen goiko zatia duen itxura izango du bigarrenak ere. "Lurzorua eta espaloia parean egongo dira. Itxura bera izango du Atzeko kale osoak", adierazi du Irati Etxeberria zinegotziak.

Zehazten

Kalea oinezkoendako egokitzeko lanekin batera, azpiegitura lanak ere egingo dira; ur hornidura eta saneamendua berrituko dira, adibidez.

Proiektu honek zirkulazio aldaketak ekarriko ditu, bai lanak egiten ari diren bitartean, baita ondoren ere. Izan ere, gero, oinezkoek izango dute lehentasuna, eta horrek aldaketak ekarriko ditu kale horren erabilera. Honen inguruan berba egiteko bilera egin zuten eguazten goizean udal ordezkariak eta udaltzainak, eta zirkulazio aldaketa bera, orduetara eta aparkalekuak izan zituzten hizpide. Izan ere, lanak bukatu ostean inguruko guneetan aparkatzeko txandakako sistema jartzeko aukera buruan darabil udalak. Zama-lanen orduetara, herritar guztiendako noiz egongo den zabalik eta gainerako orduetan nortzuek izango duten sartzeko aukera ere zehazteko dago.

NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE



Trena berriz w ere martxan

1967ko abenduaren 31n ikusi zuten azkeneko aldiz trena martxan oñatiarrek. Trenak, gaur ere, gelditu zen lekuan jarraitzen du, geltoki zaharrean, geltokiko zaindaria irteerako baime-na noiz eman zain balego bezala. Urte asko eman ditu geldi, lanik gabe. Gehiegitxo, beharbada.

Baina iritsi da trena martxan jartzeko unea, gaurkoan tren berri bat aurkeztu nahi dizuet. Poliki eta berandu datorren trena, baina ilusioz beteta eta helmugara iristeko asmo sendoz datorrena. Ez da abidura handiko trena, aurre-egiteko ez du trenbiderik behar, ezta inongo obrarik ere.

Elkartasunaren trenbide-egiteko du aurrera. Nahi beste bagoi ditu, kolore, tamaina eta erosotasun maila guztietakoak. Gelto-kiak ere nahi beste. Nahi duzun lekuan eta nahi duzunarekin igo zaitezke bertara. Hori bai, helmuga bakarra da: giza eskubideak errespetatzea.

Presoen eta haien inguruko eskubideen defentsa egiteko jarri du martxan tren hau Sarek. Ideologia guztien gainetik giza eskubideen alde gaudenok lekua gordeta dugu bertan. Bidaia merezi du. Aukeratu zure bagoia, gonbidatu zure ingurukoak eta hartu trena!

"Urte asko eman ditu geldi, lanik gabe"

Eskolako bidearen 99 ikuspuntu jaso dituzte umek argazkitan

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Eskolako bidean zer gustatzen zaien eta zer ez galdetu diete udalak eta ikastetxeek herriko gaztetxoei, eta argazki bidez jaso gura izan dituzte erantzunak. Uste baino gehiago jaso dituzte: 99 argazki guztira. Egunerokotasunean ikusten dituzten egoera ezberdinak agertzen dira argazkietan; adibidez: udaltzainak nola laguntzen dieten errepidea gurutzatzen, zebra-bideek duten garrantzia, eskolara oinez lasai joateko askatasuna, bidean dagoen iturri ondoan gelditu eta ura edateko aukera eta espalo gainean aparkatutako ibilgailuak.

Argazki guztiak ikusgai jarri dituzte kultura etxeko erakusketan. Gaur, egubakoitza, da ikusteko azken eguna; 18:00etatik 20:00etara dago zabalik gela.

Bi sari

Argazki lehiaketa, haurrak eskolara modu ez motorizatuan joateko helburuarekin, herrian egin den beste sentsibilizazio ekintza bat izan da. Baina lehiaketa izanda, irabazleak ere egon dira. LH-1etik LH-4ra arterainokoetan, irabazlea Jon Markez izan da; eta LH-5etik DBH-2ra bitartean, Iñaki Larrañaga. GoPro estiloko kamera bana jaso dute opari.



Astelenean egin zuten irekiera ekitaldia. | A.T.

Arazerixan! ginkanako azken festa egingo dute arratsaldean gaztetxoek

Herriko 159 gaztetxok hartu dute parte, 30 taldetan, Arazerixan! ginkan. Herriko historia oinarri hartuta, lau proba egin dituzte; gaurko festan egingo dute bosgarrena. Jolas honetako esperientzia jaso beharko dute eurek gura duten formatuan. Hamasei talde heldu dira finalera. 17:00etan hasiko da festa.

Txaloka ludotekak ekintza bereziak ditu prest Aste Santurako

Foruen plazan ekintza bereziak egingo ditu datozen egunetan Txaloka ludotekak. Hala, datorren astean, asteleneetik eguaztene-ra, eskulanak, karaokea eta margogintza egingo dituzte, 16:30etik 19:30era. Azken astean, berriz, jolas erraldoiak, giltzatak, pizzak eta puzgarriak eramango dituzte 10:30etik 13:30era. Eguraldi txarrenekin, berdura plazan.

Maskarada ikusteko irteera antolatu du euskaltegiak, Sohütara

Apirilaren 10ean Sohütan (Zuberoa) egingo den maskarada ikusteko irteera antolatu du Udal Euskaltegiak. Egun osoko txangoa izango da. Autobuserako txartelak salgai daude Txokolateixian eta euskaltegian hamabi eurotan (ikasle eta langabeek, zortzi euro). Herri bazkarirakoak ere badaude. Apirilaren 4a da erosteko epea.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA

ARKITEKTOAK

Era guztietako proiektu arkitektonikoak

Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Lazarraga Kalea 3, behea 661 09 35 00
20560 Oñati (Gipuzkoa) 645 70 17 52

BULEGOKO
ORDUTEGIA:

Astelena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00

Astearte
Asteazkena
15:00-19:00

550 sinadura lortu dituzte dagoeneko Oñatin, erabakitze eskubidea gauzatu ahal izateko

Gaur eta Aste Santutik bueltan, Gure Esku Dago-ren lokalean batuko dituzte; domeka eguerdian, plazan



Oñatiarrak Santa Ana antzokian sinatzen. | GOIENA

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Ekainaren 12an egingo da erabakitze eskubidearen aldeko botazioa, eta zapatuan bildu ziren oñatiarrak herri galdeketa aldeko sinadurak biltzeko, boz-

ketaren zilegitasuna aldarrikatu eta bermatzeko. Erronka 1.100 sinaduretara heltzea da, eta erdiak lortzekotan daude.

Zapatutik eguaztenera 550 batu dituzte eta datozen egune-

tan ere atxikimenduak hartzen jarraituko dute. Hala, gaur, egubakoitza, Gure Esku Dago-ren lokalean (Kale Barrian) egongo dira sinadurak biltzen 18:00etatik 20:00etara eta domekan Foruen plazan 12:00etatik 13:30era. Martxoaren 31n eta apirileko eguen guztietan ere lokala zabalik egongo da, iluntzeetan, gura duenak bere babesa eskaintzeko. Egoitzako erakusleihoan informazioa eguneratuko dute sarri, zenbat sinadura jaso diren adierazteko. Gainera, apirileko jaiegunetan Foruen plazan izango dira, eguerdietan.

Eguazten iluntzean egin zuen Oñatiko Gure Esku Dago-k bileta eta hantxe erabaki zuten sinadurak jasotzeko egutegia. Horrekin batera, orain arte batutakoen eta zapatuan Santa Ana antzokian bildutako herritar kopuruaren eta ikusitako giroaren gaineko balorazio positiboa egin zuten taldeko kideek.

Katea-Legaiako lantegi berria ofizialki inauguratu dute Goribar auzoan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Katea-Legaiak tailer berria inauguratu zuen atzo, otsailean hasi ziren arren eraikin berrian lanean. Oñatiko lantegian 50 lagunek dihardute lanean; batez ere, elektronika alorrean. Atzoko irekiera ofizialean, Mikel Biain alkatea, Gipuzkoako

ONCEko zuzendari Encina Rey, Lanbideko zuzendari Gotzone Sagardui, Maite Peña Gizarte Politikako diputatua eta KLko presidente Maite Rodriguez izan ziren. Katea-Legai taldeak ia 900 laguni ematen die lana eta langileen %96k desgaitasuna dute.



Atzo, eguena, inauguratu zuten lantegia. | MAITE TXINTXURRETA

Txirrindulari eskolak urteko lehenengo proba egingo du zapatuan, Enpresagintza inguruan

Aloña Mendiren txirrindularitza sailak antolatuta, eskolarteko txirrindulari proba egingo dute bihar, zapatua, 16:30ean. Alebin eta infantil mailetak proba izango da; hori horrela, zirkuitu itxian egingo da lasterketa, Enpresagintza eta Cegasa artean dagoen errepidean. Aloña Mendik 9 eta 10 urteko herriko gazte-txoak animatu nahi ditu proban parte hartzera. Kaskoa eta bizikleta eramatea ezinbestekoa izango da.



ALONAMENDI

Bost domina lortu dituzte karatean

Aloña Mendiko borrokalariek emaitza "oso onak" lortu zituzten domekan jokaturako eskola arteko Gipuzkoako txapelketan. Infantil nesken kategorian, Alazne Unzurrunzaga lehenengoa izan zen kumite sailean, 50 kilo azpikoetan; eta Leire Urkia hirugarrena izan zen kumiten 50 kilotik gorakoetan. Infantil mutilen kategorian, kumitean, Mikel Juradok bigarren egin zuen 50 kilo azpikoetan; Danel Casais hirugarrena izan zen 60 kilotik gorakoetan; eta, Aitor Altolagirre hirugarren kata modalitatean.

Argazkilaritzako oinarritzako ikastaroa egongo da apirilean

Argazkilaritzako hastapen ikastaroa egingo da apirilaren 12an hasita Ilunpetan argazkilaritza elkartearen eskutik. Kamerak modu manulean erabiltzen irakatsiko da eta irudien konposizioarako oinarritzako ezagupenak ere emango dira. Prezioa da 70 euro eta izena eman daiteke helbide honetara idatzita: ilunpetan@gmail.com.

Hainbat udal zerbitzu itxita egongo dira Aste Santuan

Udal zerbitzuek ez ohiko ordutegia izango dute martxoaren 24tik 28ra. Bulegoak, adibidez, itxita egongo dira, baita liburutegia eta kultura etxea ere; zinemarik ere ez da egongo. Kiroldegia, aldiz, zabalik egongo da zapatuan eta domekan. Turismo bulegoak, bestalde, udako ordutegia izango du eta bisita bereziak egingo ditu.

Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak



GOIAZ! 2016

Lanbide Heziketaren Azoka

Eskerrik asko etorri zareten guztioi. Hurrengo urtera arte!



goiazdebagoiena



Gorka Kerejeta arrasatearra Automatizazio eta Robotika Industrialak goi-mailako heziketa zikloa bukatzen ari da. Aurretik, Informatikako beste bi goi mailako ziklo eginda dauzka. Lanpetuta harrapatu dugu; lanean, ikasten eta FTC Lego lehiaketarako robota prestatzen. Lanbide Heziketak hainbat enpresa ezagutzeko aukera eman dizu. Zein da zure esperientzia? Bai, egia da. Orain, Kiro Robotics-en ari naiz lanean, urtarila ezker, eta hemen egingo ditut praktikak, ekainera arte, gutxienez. Aurretik, Mondragon Assembly-n egon naiz; horrek aukera eman zidan Kiro-ren makina ezagutzeko, eta orain, oso lan interesgarria burutzen ari naiz; makinak nola funtzionatzeko duen, nola programatu dezakedan, eta abar ikasten ari naiz. FTC Lego lehiaketarako robota prestatzen ari zarete hainbat ikasle. Zein da zure erroka? Hemen ziklo desberdinetako ikasleekin, taldean, robot bat egin dugu, eta Holandara goaz, Europa mailako lehiaketara, bi aste barru, han zehaztuko dizkiguten probak pasatzera. Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa? Informatika gustatzen zait aitzak etxera lehenengo ordenagailua ekarri zuenetik. Eta garbi nuen informatika arloko zerbait ikasi nahi nuela, eta praktikoa izan behar zuela. Eta orain, Automatizazio eta Robotika ikasten jarraitzen duzu. Zer dela eta? Arlo horrek, nire ustez, etorkizun handia du, oso interesgarria da eta, gainera, ez da askorik urruntzen informatikatik. Nire



"Eskolatik enpresara aldaketa dago, ezinbestekoa da horrelako esperientziak bizi izatea. Enpresak nola funtzionatzeko duen eta nola egiten den lan ikasten da."

profila osatzen lagundu dit, elektronikaz gehiago ikasi dut. Lanbide Heziketak zer dauka azpimarratzeko?

Alde batetik, metodologia: praktikan oinarritzen da ikasketa, eginez ikasten duenarentzat askoz erakargarriagoa da. Oinarritzako teoria bat hartuta, praktikan bidez ikasten da; guk zikloan, adibidez, robot-beso bat daukagu eta horrekin joan gara ikasten. Eta beste aldetik, praktikak: oso praktika aberasgarriak. Eskolatik enpresara aldaketa dago, ezinbestekoa da horrelako esperientziak bizi izatea. Enpresak nola funtzionatzeko duen eta nola egiten den lan ikasten da.

Isasmendik uda arte jarraituko du Basotxon

Tere Artano, Jose Gato eta Xabier Zaloña dira sartu berri diren batzordekideak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletako erretiratuek batzar orokorra egin dute, iazko kontuak onartzeko eta aurtengoak aurkezteko. 975 bazkide dituen Basotxo elkarte herriko jendetsuenetakoa da, eta ia ehun mila euro inguruko aurrekontua du.

"Pozik" agertu ziren batzar orokorrean elkartutako bazkideak, orain arte egindakoekin; horregatik, bide beretik jarraitu gura dute: "Urte oparoa izan zen iazkoa, guretako handia, eta, aurten halako marka egiten badugu, oso pozik

izango gara", azaldu du Jose Inazio Isasmendik, presidentea.

Horretarako 98.000 euroko aurrekontua dute, eta aurten ere bidaia izango dira protagonista nagusiak. Laster Kantabriara joango dira egun pasa eta abendua bitartean Burgosera, Iparraldera, Nafarroara eta Donostiara joateko aukera eskainiko diete bazkideei. Astebeteko hiru bidaia ere egingo dituzte: apirilean Benidormera, ekainean Britainiara eta Normandiara eta urrian, berriz, Galiziara.

Horrekin batera, eskainiko dituzte hitzaldiak Kontsumobiderekin elkarlanean, eta ikastaroak; egunotan Interneten gainera egiten dabilta. Ekitaldiak eta ospakizunak ere ez dira faltako; irailean, esaterako, Kultur Astea egingo dute, azken urteotan legez.

Zuzendaritza berria

Urteko batzarrean Basotxo elkarteko zuzendaritza batzordea berritu dute. Hiru lagunek utzi dute batzorde hori: Mariasun Isasmendi idazkariak, eta Nieves Arana eta Fortu Lopez bokalek; eta horien ordeztatu dira Tere Artano, Jose Gato eta Xabier Zaloña. Presidenteak, oster, hilabete batzuk jarraitzea erabaki du: "Neuri ere batzordea uztea tokatzen zait baina ordezkorik ez dugu topatu eta uztaila arte egongo naiz. Ea ordu-rako inor animatzen den". Presidenteordea ere oraindik ez dute izendatu, idazkaria da sartu berri den Tere Artano, diruzaina Iñigo Olabe eta bokalak honako hauek: Floren Elortondo, Kontxi Romano, Glori Elortza, Txaro Villar, Jose Gato eta Xabier Zaloña.



Jose Inazio Isasmendi, presidentea, azalpenak ematen bazkideei. | IMANOL SORIANO

Txarapeako lur-jausiei irtenbidea topatzeko lanetan dabilta

M.A. | ARETXABALETA

Txarapeako maldan, etxebizitzaren atzeko partean, lur-jausi pare bat izan dira azken asteotako euri-jasen ondorioz; 34 eta 36. eta 74 eta 76. atarteetan atzealdean, hain zuzen. Udal ordezkariak jakinarazi dute ez direla larritzekoak eta ez dutela Ondarroako kasuaren inolako antzik.

Orain dela urte pare bat ere izan ziren lur-jausiak malda horretan bertan, oraingoak baino larriagoak: "Bio-ingeniarietako nahaste batekin probatu zen orduan, eta landareak sartu ziren lurra-ri heltzeko. Baina ikusi da ez dela nahiko izan egindakoa, bi

urte pasatutakoan behera egin duelako berrirori", jakinarazi du Unai Elkorok, alkateak.

Malda urtsua

Sestra ingeniarietza eta arkitekturetako arduradunak jardun dute inguru guztia aztertzen asteen: "Ez dakit behin betiko konponbiderik topatuko diogun malda horri, oso urtsua delako, baina saiaturako gara", eman du aditzera Elkorok.

Bien bitartean, erabaki dute areka inguruak garbi mantentzea, kalterik ez sortzeko etxeko horietako garajeetan eta beheko solairuetan.



Txarapeako 34 eta 36. atarteetan atzealdean izandako lur-jausia. | M.A.

Patinaje ikastaroa eta puzgarriak kiroldegian

M.A. | ARETXABALETA

Ibarra kiroldegian ez dute oporrik hartuko Pazko Astearen, eta gaztetxoek hainbat ekintza eskainiko dizkiete. Batetik, patinaje ikastaroa egingo dute martxoaren 29an eta 30ean. Bi txanda izango dira adinaren arabera banatuta: 16:15etik 17:15era 4 eta 9 urte artekoak jardungo dute eta 17:15etik 18:15era 10 eta 14 urte artekoak. Plazak mugatuak dira eta izena aurrez eman behar da; azken eguna martxoaren 21a da, astelehena.

Bestetik, puzgarriak izango dituzte martxoaren 31n igerilekuan. Bi jarduerak debalde izango dira abonatuendako, eta gainerakoek sarrera ordaindu beharko dute.

Aste Santuko ordutegia

Aste Santuko egunetan ordutegi berezia izango du kiroldegia: martxoaren 24tik 28ra goizez bakarrik, 09:00etatik 14:00etara; eta martxoaren 29tik apirilaren 1era, 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

NIRE USTEZ

INAXIO GARRO



Argi dago

Azken urteotan zera baino garbiago geratu zaigu Lur planetak mehatxu handia duela aurrez aurre: klimaren aldaketa. Horren aurrean, eredu energetiko berri baten beharra guztiz zentzuzkoa da.

Horren ondorioz, *Planetaren ordua* lelopean, datorren martxoaren 19rako, zapatua, etorkizuna pizteko, argiak itzaltzeko mezua zabaltu da, ingurumena babesten ahalegintzen den WWF izeneko Mundu-Fondoak bultzatuta. Horrela, mundu zabalean milaka eta milaka herritarren babesa jasoko du aurten ere, gaueko 20:30ak eta 21:30ak bitartean ordubeteko itzalaldia eginez. Denboran atzera eginez, iaz 7.000 hirik eta 35.000 enpresek baino gehiagok bat egin zuten mundu osoan ekimenarekin. Gu ez gara gutxia izango.

Planeta guztiona eta guztiontzat da, eta sekulako erantzukizuna dugu gure ondorengoei mundu duina eta orekatua uzteko, guri ere transmititu diguten modukoa. Errespetua zor diegu etorriko direnei, eta mundu osasuntsua jasotzeko eskubidea dute, giza-katea eten ez dadin.

Handia izan zen joan den urteko abenduaren erdi aldera munduko 195 herrialdek Parisen adostutakoa: XXI. mendea amaitzerako mundu osoko batez besteko tenperaturaren igoera 2°tik beherakoa izatea, eta horretarako makina bat neurri lotzea. Baikorrak izate aldera, ez da gutxi mundu mailako agintariak klima aldatu dela onartu izana. Ea ba agintariak eta herritarrok behingoagatik lerrokatuta goazen planeta suntsipenaren zulotik ateratzeko.

Hasteko, datorren zapatuan argiak ordubetez itzaltzeari ekingo diogu. Gero gerokoak.

"Etorkizuna pizteko argiak itzaltzeko mezua zabaltu da"



MIRARI ALTUBE

Bukatzer Geltoki plazako lanak

Lanak ondo bidean eta eguraldiak laguntzen badu, asteen bukatuko dute Geltoki plazako bide-zorua jartzen eta kalea asfaltatzen. Datorren asteen, oster, seinaleak jarriko dituzte, horizontalak zein bertikalak, eta inguru osoa txukunduko dute. Asfaltatze lanek iraun bitartean, Mitarte kalea zabalik izango da hango garajeetatik sartu-irtenak egin ditzaten bizilagunek.

Obra eta zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatzeko izen-emate epea zabalik daukate udaletxean

Obra eta zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatu gura du Udalak, eta izena emateko epea zabalik dago; azken eguna martxoaren 31 izango da eta eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira. Eskatutako baldintzen artean honako hauek daude: Europako Bata-suneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea eta 16 urte beteta izatea, besteak beste. Lanegunak eta ordutegia Udalak urtean finkatutakoak izango dira, betiere, lanpostuaren izaeraren eta premien arabera.

Baldintzen gainera argibide gehiago eta lanpostuaren gainera xehetasunak Udalaren webgunean daude: www.aretxabaleta.eus.

Ortzadarraren koloreak dantzarien eskutik datoza

Leizarra musika eskolako abesbatza, txistulariak eta dantzariak elkartuko dira gaur, Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ortzadar Jaia egingo dute gaur, egubakoitza, Leizarra musika eskolako kideek, 18:00etan, Herriko Plazan (euria eginez gero, Iturrigorri pilotalekuan). Gaztetxoan abesbatza, dantzariak eta txistulariak elkartuko dira euskal dantzei eskainitako ekitaldi dotorean.

Kamiseta koloretsuak

"Azken urteotan musika eskolako ekitaldiarekin hasi izan ditugu Aratusteak, baina aurretik ez dugu egin ekitaldirik, Santa Ageda egunarekin batera izan zelako", jakinarazi du Mariatzen Urkiak, Leizarra zuzendariak. Orduan atzeratutakoa dator orain, eta jaialdia Aratusteei eskaini beharrean udaberriari eskainiko diote: "Dantzako ikasle guztiek hartuko dute parte eta talde bakoitza kolore ezberdineko kamisetekin agertuko da; hortik dator Ortzadar Jaia". Hori horrela, euskal dantzen saioa izango da txistulari taldeak lagun eginda.



Txistulariak eta dantzariak iazko Aratuste jaiari hasiera ematen. | M.A.

Emusik jaialdirako entsegua

Maiatzeko lehen aste bukaeran Emusik 2016 jaialdia izango da Donostian eta baita Aretxabaletan ere. Europako hainbat musika eskolek hartuko dute parte ekimen horretan, Leizarra besteak beste. Eta ordurako entseguen dagoeneko hasita daude: "Pello Joxepe abestia ikasten gabilta eta Ortzadar Jaian eskai-

niko dugu entsegu moduan. Maiatzean bandak ere hartuko du parte baina oraingoan txistulariek eta dantzariak egingo diote lagun gaztetxoan abesbatzari", argitu du Urkiak.

Gaztela-Mantxa, Lituania, Suitza eta Alemaniako abesbatzak gerturatuko dira maiatzean Aretxabaletera Emusik jaialdiaren barruko ekitaldiak eskaintzera.

Errelebo-proban nagusi izanda pozik itzuli dira herriko igerilariak



Elortondo, Arejolaleiba, Izagirre eta Barkero, Legazpiko igerilekuan. | FLOREN ELORTONDO

M.A. | ARETXABALETA

Bosgarrenez egin zuten, Legazpin, *Kirola elkarrekin* jardunaldia, eta Aretxabaleta kirolariak ere han izan ziren. Igerian jardun zuen laukoteak eta 4x25 errelebo-proban nagusi izan ziren.

Kirol asko ezagutu eta egiteko aukera izan zuten 300 bat lagunak. Batzuk mendira joan ziren, beste batzuk futboleko, pilotan edo bolotan jardun zuten, eta Alex Elortondok, Iker Arejolaleibak, Jokin Izagirrek eta Juan Carlos Barkerok igerian egin zuten. Ehun bat lagun artean txapeldunak izan ziren errelebo-proban, eta ezin harroago itzuli ziren. "Beste proba batzuetan ere jardun zuten: crawllean, bizkar-igeriketan eta bular-igeriketan; guztietan ere bikain", argitu du Floren Elortondok, eta gaineratu du: "Zorionak eta segi halaxe!".

'Abian' prozesuaren bigarren bilera egingo dute bihar, zapatua

Abian prozesua eztabaidatzen dihardute ezker abertzaleko kideek, eta bigarren saioa egingo dute bihar, 10:00etan, udaletxe zaharrean. Hona hemen landuko dituzten gaiak: proiektu politikoa; eskaintza independentista; taktikaren garapena; gatazkaren konponbidea; eta antolaketa. Emendakinak aurkezteko aukera egongo da.

'Spotlight' filma dute helduek aste bukaeran eta 'Zootropolis' umeek

Film onenaren eta gidoi originalenaren oscarak lortu berri dituen *Spotlight* (Estatu Batuak, 2015, 129 min.) filma izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umeek, oster, *Zootropolis* marrazki bizidunen film luzea izango dute bihar eta etzi (17:00). Martxoan emango diren azken filmak izango dira horiek.

Bizkarra ondo zaintzeko argibideak emango dituzte gaur

Ezagutu eta zaindu zure bizkarra izenarekin, David Spine Concept metodoaren berri emango du Asier Viteri adituak gaur, egubakoitza, Ibarra kiroldegian, 18:00etan (izena aurrez eman beharra zegoen).

Hitzaldi teorikoa eta praktikoa izango dela iragarri dute, eta arropa erosorekin joatea komeni da.

Dantzan zein oinez, emakumeek martxan daudela erakutsi dute

M.A. | ARETXABALETA

Lehenengoz antolatutako Aresko martxak 400 lagunetik gora elkartu zituen domekan. Aresko saskibaloia eskolako antolatutako berdintasunaren aldeko ibilaldiak aurreikuspen guztiak gainditu zituen, eta Eskoriatzarako bidegorria uholde arrosa bihurtu zen.

Emakumeak eta berdintasunaren aldeko herritarrak martxan jarri zituen ibilaldiak omenaldiei ere egin zien tarte. Hala, Matilde Garai atleta ohiak aretxabaletarren txaloak eta eskerrak jaso zituen.

200 dantzarien topaleku

Zapatuan, oster, kaleko dantzeekin bete zen Ibarra kiroldegia, hirugarren urtez egin den Fun Dantz lehiaketari esker. Euskal Herriko bazter askotatik etorritako 200 dantzaritik gora elkartu ziren nor baino

nor gehiago erakustaldi doto-rek eskaintzeko.

Apirilaren 16an Bilbon jokatuko duten Break On Stage lehiaketan parte hartzeko txartelak zeuden jokoan, eta honako bi talde hauek lortu zituzten: Bilboko Fussion Noise-k eta Donostiako Bamboo-k.



Matilde Garai, plazan. | EKAITZ FILARMENDI



Fun Dantz lehiaketan jardundako neska taldea. | E.F.

Adimen emozionala, autoestimua eta emakumeen ahalduntzea: horien gaineko ikastaroa apirilean

Clara Wolfram adituak gidatuta, adimen emozionala, autoestimua eta emakumeen ahalduntzea lantzeko saioa egingo dute apirilaren 23an, zapatua, Arkupe kultura etxean (10:30-13:30). Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako ikastaroa, eta ahalduntzearen eta emozioen arteko harremanaz hitz egingo du Wolfram; ahalduntzeak emozioen kudeaketarekin duen loturaz, hain zuzen ere.

Izena aurrez eman beharra dago (azken eguna, martxoak 31) udaletxean bulegoa duen Berdintasun Zerbitzura deituta (943-71 18 62) edo posta elektronikoko bidez mezu bat bidalita: berdintasuna@aretxabaleta.eus.

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Apirilaren 18an jarriko da martxan sistema berria

21 gune izango dira Eskoriatzan auzo ezberdinetan banatuta eta elizateetan berriz, gaur egun moduan jarraituko dute giltza bidezko sistemaz

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Bosgarren edukiontzi bidezko sistema apirilaren 18an hasiko da martxan. Apirilaren 4tik 11ra bitartean, atez ateko sistemako esekitakoak kendu eta edukiontzi berriak jartzen hasiko dira. Kasu batzuetan, orain arte atez ateko guneak egon diren leku berean egongo dira edukiontzi

berriak, eta gune hauetan esekitakoak mantenduko dira edukiontzi berriak jarri bitartean.

Josu Ezkurdia Eskoriatzako hirigintza eta mugikortasuneko batzordeburuaren esanetan: "Sistema berriarekin martxoaren amaieran hastea zen asmoa, baina Aste Santua tartean dela-eta, aldaketa hobeto kudeatzeko

apirilera atzeratzea pentsatu dugu".

Edukiontzi txikiak

Herrian sakabanatuta 21 gune jarriko dira guztira, baina "gune batzuetan, Gorosarri eta Olazar auzoetan, esaterako, edukiontzi normalez gain, txikiagoak ere jarriko dira, kale estuak daudelako", adierazi du Josu Ezkurdiak.

Bestalde, organikorako edukiontziak erabiltzeko, nork bere gunean dagoen edukiontzi irekitzeko aukera izango du soilik, eta oraindik txartelik jaso ez duena edo zalantzak argitu nahi dituen hondakinen informazio bulegotik pasa dadila, edo 688 862 527 telefonora dei dezala.

Informazio gehiago

Sistema berriarekin arazoren bat balego, Mankomunitateko telefono kontaktua eta helbide elektronikoa izango dira edukiontzietan, edozein arazo edo zalantza izanez gero kontsultatzeko.



Santa Ana auzoko gunea argazkiak erakusten duen lekuan egongo da. | I.B.



Astelehenean, kultura etxean, Olazar elkarteak aurkezpenean. | I.B.

'Herri lagunkoiak' ekimena hastear da

Olazar elkarteak erretiratuek herriko hainbat arazoren gainean hitz egingo dute

I.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak *Herri lagunkoiak* egitasmoa jarriko dute martxan. Lantaldean batuta, herriko zortzi eremutan identifikatzen dituzten arazoak jaso, eztabaidatu eta aktetan jasoko dituzte, ikusten dituzten arazoak Udalarari ezagutarazteko ondoren.

Eskoriatzan aste honetan egin dute proiektuaren lehen aurkezpena, eta apirilaren 11n

egingo dute lehen bilera. Erretiratuen elkarteak 20 lagunek osatuko dute lantaldea, Jose Mari Kortazar elkarteak presidentea koordinatuta.

Helburu nagusia

Taldean, errespetuz, herriko gaiak tratatuko dituzte hamabost egunean behin, eta bileren helburu nagusia lantaldean hitz egiten ikastea izango da, bide batez, erretiratuen iritzia herri-za zabaltzeko.

Gai guztiak aho batez onartuta osoko bilkuran

Emakumeen Euskal Bira antolatzeko hitzarmena sinatu dute Debagoieneko Mankomunitatearekin



Martitzenean, martxoko ezohiko bilkuran. | I.B.

I.B. | ESKORIATZA

Martxoko ezohiko osoko bilkuran hainbat gai landu zituzten. Horietako bat izan zen Bernabe Errastiren jabetzatik Mazmelarako bideraino doan bide zatiaren espedienteari hasiera ematea. Bidea publikoa den edo ez jakiteko, epaileak Udala behartu du ikerketa zabaltzera, eta, horretarako, alderdi bakoitzeko ordezkari banak eta idazkariak batzorde bat osatuko dute.

Emakumeen Euskal Bira

Udalak Mankomunitatearen erabakia berretsita, apirilaren 14an izango da Emakumeen Euskal Birako lehenengo etapa Eskoriatzan. Guztira, 76,6 kilometro izango ditu.

Koldo Carrilloren argazkiak ikusgai Inkernu tabernan

I.B. | ESKORIATZA

Baso Bizia-Bizi Basoa lelopean argazki erakusketa jarri du Koldo Carrillok Inkernun. Udaberria heltzear dagoela, kolorez betetako hamar argazki jarri ditu. Guztiak basoan ateratakoak dira, ohiko mendietatik aldentuta dauden txokoetan ateratakoak.

Carrilloren esanetan: "Basora intimitatea bilatzera joaten naiz, eta hori islatu nahi izan dut erakusketan". Astelehenetik martxoaren 31ra arte izango da ikusgai erakusketa.

Txikientzako areto futbol campusa egingo da Eskoriatzan

Bizitza osasuntsua, kirola... bultzatzeko asmoz, martxoaren 21etik 23ra bitartean, 7-11 urte bitartekoentzat areto futbol campusa antolatu du Eskoriatzako Kirol Elkarteak, Arizmendirekin eta Udalarekin batera. 20 euro da, eta plaza mugatuak izango ditu.

Hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzea gaur

Eskoriatzan euskal preso eta iheslarien aldeko hileko azken egubakoitzean egiten den elkarretaratzea gaur egingo da, 19:00etan, herriko plazan. Aste Santua dela-eta data aldatzea erabaki du Eskoriatzako Presoen Lagunak taldeak.

Ezker abertzalearen Abian prozesuaren bigarren batzarra

Eskoriatzako eta Gatzagako ezker abertzaleko Abian prozesuaren bigarren batzarra egingo da martxoaren 19an, 10:00etan, Ibarraundi museoan. Bi herrietako ikuspuntutik aberasteko eztabaida izango dute, hainbat gai zehatzetan zentratuz.



Aingeru Guarda ibilbidea, 23

IBILTARIK
CAMPER EKI PAMENDUAK

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

www.ibiltariak.com



Auzokideak eta auzotarrak alkatearekin herriko kanpandorrean. | I. MAIDER ARREGI

ESANAK

"Jendeari lehen hitza euskaraz esatea da garrantzitsuena"

MAITE TELLERIA | DINAMIZATZAILEA

tzuna emateko zein urrats egin jakiteko *auzokideak* gertutik eza-gutxera etorri naiz. Izan ere, antzuolarrak dira Antzuolan bizi direlako", azaldu zuen aurkezpenean Antzuolako alkateak.

Sorpresa eta guzti etorri zen, gainera, herriko alkatea eguaztene-ko Auzoko saiora. "Antzuolar gutxi izango zuen, ziurrenik, herriko kanpandorrera igotzeko aukera. Gaur, kanpandorrera igotzeko eta bertako istorioa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu", gaineratu zuen.

Eguaztenero, Olaranen

Bi urte dira Auzoko programa martxan jarri zela Antzuolan. Maite Telleria dinamizatzaileak balorazio ona egin du. "Euskaraz hitz egiteko erraztasuna lortzen dute. Garrantzitsuena da jendeari lehen hitza euskaraz esatea, alegia", gaineratu du.

Ishor Bhudathoki nepaldarrak ere ez du hutsik egiten. Orain dela hiru urtetik Antzuolan bizi da eta dagoeneko euskara menperatzen du: "Auzokori esker euskaraz esaldiak zuzen egiten ikasi dut. Herriko jendea ezagutzeko aukera ere eman dit; oso pozik nago bene-benetan".

Auzoko programa herritarrei zabaltzeko asmoz, dokumentala egiten ere badabilta. *Auzotarra* edo *auzokidea* izan gura duenak eguaztenero Olaranen 18:00etan dauka aukera.

'Auzokideak' ezagutu eta euren beharrei erantzuteko, alkatea Auzokon izan da

Herriko kanpandorrera igo, eta bertako istorioaz berba egin zuten 'auzokideek' eta 'auzotarrek'

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bisita berezia izan dute asteen Auzoko programako kideek. Izan ere, gertutik ezagutu gura izan ditu Beñardo Kortabarria alkateak

programaren nondik norakoak. Baita *auzokideak* zeintzuk diren eta egun Antzuolan bizi duten egoera zein den. "Antzuolarren beharrak ezagutu eta horiei eran-



ARROLA MENDI TALDEA

Hogei ikastetxe Antzuolako ibilaldi neurtuan

KOMUNITATEA GOIENA | ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

Hogei ikastetxetatik etorri ziren domeka goizean Antzuolako ibilaldi neurtuaz goatzera. Antzuola, Arrasate, Oñati, Bergara, Soralueze, Elgeta, Eibar eta Debako gaztetxoak izan ziren gurera etorritakoak, hain zuzen ere. Guztira, 285 haur eta 173 guraso; horietatik 71 haur antzuolarrak izan ziren.



Kriseiluak zeruratu zituzten Erain Debagoienaren aurkezpenean. | I. SORIANO

Erabakitzeko eskubidea ozen aldarrikatuz

KOMUNITATEA GOIENA | ERAIN
JON UGARTEBURU | ANTZUOLA

Herriak hitza bere esku hartu zuen egubakoitz arratsaldean Antzuolako kaleetan. Aurkezpene dotore antzean prestatzen saiatu baginen ere, Zurrategi plazako kiosko parean batu ziren herritarrek estatu kolpe errebeldea jo eta agindu guztien ginetik aineratu zituzten beraien kriseiluak. Ederra da, benetan, herriaren nahiak aurretik prestatu duzun plangintza gainditu eta borondate propioa erakustea. Zinez hunkitu ninduen, hasiera bateko haserrea dominatu ostean, han bilduta-

koen jokabideak; izan ere, kontrola nahi genuenon berbari muzin egin, eta ametsak aire-ratzeari ekin zioten. Ederra benetan, hori baita nik maite dudana herria, errebeldea, domina gaitza, borondatearen jakituna. Firmak behar genituen eta baita lortu ere. Ordubete eskasean 125 eskuratu genituen eta. Arrats zoragarria egubakoitzean bizitakoa, herria gu geu garela eta erabakia gurea dela oroitu nuen kriseiluen argiek ortzia koloreztatu zutenean. Erabakia eraikiko badugu, herriak errebelde izan beharko du.

Landatxoeko erretiratuak musean txapeldun Bergaran

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzen arratsaldean jokatu zen Bergarako San Josepe elkartean Debagoieneko karta txapelketako kanporaketa. Bertan, Felix Alonsok eta Mariano Urrutxik, Antzuolako txapelketako txapeldunordeek, esku-

ratu zuten garaipena musean -Lizundi eta Muñoz txapeldunek ezin izan zuten joan-.

Gainontzeko txapelketetan ez zuten aurrera egin. Baina musean, Gipuzkoako txapelketako finalari begira, beste urrats bat egin dute.



Bergarako txapelketara joandako antzuolarrak. | LANDATXOPE

OHARRAK

'CLOWN' SAIOA

Andrea di Cosimo italiarraren eskutik helduendako *clown* saioa. Zapatuan 21:00etan, Torresoroan. Sarrera: 8 euro.

IPUIN KONTALARIA

Lur Korta ipuin kontalaria domekan, 18:00etan, Torresoroa aretoan.

ERAKUSKETA ETA MUSIKA

Zerenpya taldearen kontzertua gaur, 23:30ean, Aitz Garbin. Jabier Etxaluzeren erakusketa ere ikusgai izango da gaurtik.

PILOTA: INFANTILEN MAILA

Larreak eta Jauregik Gipuzkoako finala jokatu dute Beoti-barren, 10:30ean, domekan.



Aramaioko mapa toponimikoa. | ARANTZAZU EZKIBEL

Mapa toponimiko berria etxez etxe banatuko dute

Aramaioko naturaren, ondare historiko eta kulturalaren eta mitologiaren gaineko informazioa du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aramaioko mapa toponimikoa argitaratu berri dute; egunotan etxez etxe banatzen dabiltza. Aramaioko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Basotek ingurumen-aholkularitzak egin dute mapa. Horretarako zegoen diru laguntza aprobetxatu du Udalak lan hori egiteko.

5.000 ale atera dituzte, eta, etxez etxe banatzeaz gain, Aramaioko landa-turismoetan ere utziko dituzte hainbat ale. "Gainera, inguruko herrietako turismo bulegoetan era utziko ditugu", azaldu du Lierni Altuna alkateak. Helburu nagusia da herria eza-gutzera ematea: batetik, bertakoendako balioko du, "gehiago

jakin dezaten" Aramaioren inguruan; eta, bestetik, kanpokoendako laguntza izango da, ibilbideak, natur baliabideak eta beste hainbat gauza ezagutu ditzaten.

Ibilbideak azaltzen dituzte

Eskuorriak bi aldeetan du informazioa. Alde baten mapa toponimikoa agertzen da; sinbologia

ESANAK

"Bertakoendako balioko du gehiago jakin dezaten"

LIERNI ALTUNA | ALKATEA

bitartez landa-etxeak non dauden, atsedenguneak, karobiak, base-lizak... non aurki daitezkeen ikus daiteke. Horrez gain, auzo guztien gaineko informazioa dakar, baserriak identifikatuz. Mapa toponimikoaren eskala da 1:20.000. Informazioa Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren datu basetik eta Aramaioko Udaletik hartutakoa da.

Horrez gain, Aramaion egin daitezkeen ibilbideak ere agertzen dira. Guztira, 11 ibilbide daude: 2,12 kilometrokoa motzena eta 13,33 kilometrokoa luzeena.

Ortoargazkia

Eskuorriaren beste aldean ortoargazkia dago -2014. urtekoa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarena-. Aramaioko naturaren gaineko informazioa, Aramaioko ondare historiko eta kulturala eta Aramaioko mitologiaren gaineko informazioa dakar mapak. Informazio horiek aurkezteko erabili dituzten argazkiak Alex Mendikute aramaioarrarenak dira.

Urkiolako parkea, Albinagoi-ko baso erreserba, Mirugain basoa, Albinako urtegia, Aurtola burdinola, Letazurreko hilobiak, Ipiztikoarriaga eta beste hainbat leku aurki daitezke mapan. Arabako *pinus radiata* altuenei buruzko informazioa ere badakar.

Pediatra zerbitzua berri Aramaion

A.E. | ARAMAIO

Datorren eguaztenetik aurrera, martxoak 23, berriro ere pediatra zerbitzua eskainiko du Osakidetza Aramaion.

Garai batean pediatra Aramaion egoten bazen ere, biztanle kopurua zela-eta zerbitzu hori kendu egin zuen Osakidetza. Udalak hainbat urte egin ditu Osakidetzarekin harremanetan zerbitzua berreskuratzeko -izan ere, herritarrek kexa asko jarri dituzte galera horregatik-. Bada, berriro ere jarriko dute zerbitzua Aramaion. Etorkizuneko behar eta eskaeren arabera Udalak eta Osakidetza balorazioak egingo dituzte, eta egin beharreko moldaketak egin. Konpromiso hori hartu dute bi erakundeek.

Zerbitzua eskainiko dute orain arte Aramaioko umee-kin ibili den pediatrak eta pediatra erizainak. Bi astetik behin etorriko dira Aramaio-ra, eguaztenetan, 13:00etatik 15:00etara. Orain arteko bideak erabili beharko dira pediatrarekin hitzordua hartzeko.

"Aramaioko Udalak asko poztzen da zerbitzu hau berreskuratu izanaz eta eskerrak eman nahi dizkio bailarako Osakidetzari moldaketa hau egiteko prestutasuna izan delako", azaldu du Lierni Altuna alkateak. Zerbitzua erabiltzeko dei egin die herritarrei Udalak.

AHTko obretan gertatutakoaren zergatia ikertzen jarraitzen du oraindik ere Adifek

A.E. | ARAMAIO

Aramaioko Udalak Adifen txostenaren zain jarraitzen du; Adif gertatutakoaren zergatia ikertze dabil zundaketa bitartez. Otsailaren 19an gertatu zen lur-jausia Untzilla auzoan, Lugartegi baserriaren inguruan. Ordutik, behin baino gehiagotan jausi da lurra gunee horretan; AHTko euste-horma bat behera etorri zen astebate geroago. "Azkeneko egun hauetan

ez da lur gehiago kolpean jausi, baina egoerak bere horretan jarraitzen du", azaldu du alkateak.

Bizilaguna etxetik kanpo

Lugartegi baserrian txapa batzuk jarri dituzte, gerta daitezkeen mugimenduak kontrolatzeko. Hala ere, bizilagunak oraindik ere etxetik kanpo lo egiten jarraitzen du. Udalak kezkatuta dago egoera horren aurrean.



AHTko obretako euste-horma bat jausi egin zen. | GOIENA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Amaitu dute kuadrilla artekoa

Joan zen zapatuan amaitu zuten Arabako bertso kuadrilla artekoa. Azkeneko saioa Argantzunen egin zuten. Sei topaketa egin dituzte guztira; bada, horietan parte hartu duten 14 taldeak egon ziren azkeneko festan. Bertsoa sei formatu ezberdinetan jorratu zuten: jokoak, koplak, herri kirolak, boloak, guda eta saio musikatua.

Erain Debagoienak sinadurak batuko ditu gaur, 19:00etan

Herri galdeketa aldeko sinadurak batzen jarraituko dute gaur, barikua, Ibarra. Mahaia jarriko dute okindegi aurrean, 19:00etan. Horrez gain, domekan, 12:00etan Oletan jarriko dute mahaia sinadurak batzeko. Sare sozialetan #nikbeERAIN traolarekin erretratua zabaltzeko deia egin dute.

Aramaioko Udaleko ataria '.eus' izango da aurrerantzean

Dagoeneko erabilgarri dago *aramaio.eus* ataria. Aldaketa egiten ibili diren bitartean ez da egon ikusgai webgunea. Horrez gain, Udaleko helbide elektroniko guztiek ere *.eus* amaiera dute azkeneko hilabeteetan. Adibidez, informazio orokorrerako helbidea *udala@aramaio.eus* da.

ELGETA

Itxita dago kafe antzokia, eta, oraingoz, ekintza puntualetarako irekiko dute

Udalak martitzenean aztertuko du kontratua eteteko alokairudunaren eskaera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
"Ekitaldi bat programatuta dagoen antzokia zabalik egongo da", esan du Iraitz Lazkano alkateak, eta jakinarazi du gainerakoan antzokia itxita egongo dela. Alokairudunak kontratua eteteko eskaera egin du, eta Udalak martitzeneko osoko bilkuran aztertuko du gaia. "Espero dugu pare bat asteko epean Udalak kontratua etenda edukitzea eta aretoaren erabilera bereganatu izana", esan du alkateak. Udalak exekutatu egingo du alokairudunak hasieran ipinitako 12.000 euroko abala. "Abal horrek ez du

egindako zorra erabat kitatuko, baina ikusteko daukagu zein kontzeptugatik den zor hori", esan du Lazkanok.
Hurrengo pausoa litzateke parte hartze prozesu bat zabaltzea herritarrekin batera definitzeko bai Elgetak zein kultura eskaintza behar duen bai kafe antzokiaren proiektua. Udal ardura-dunen ustez, hausnarketa sakona dago egiteko. "Zein izan behar da ostalaritza zerbitzuaren eta kultura eskaintzaren arteko harremana? Esleitu behar da ostalaritza zerbitzua eta museoa alde batetik eta kultura eskaintza

bestetik? Kultura eskaintza Udalak egin behar du herriko eragileekin batera? Bideragarria da Elgetan aste guztian zabalik dagoen beste taberna bat? (...) Gure asmoa da pausoak poliki-poliki ematen joatea. Behin eta berriz ikusi dugu herri honetan presaka egindako gauzek azkenean ibilbide motza dutela", esan du alkateak.
Herrixa Dantzan domekan
Antzokia itxita egonda ere, Herrixa Dantzan saioek ez dute etenik izango. Domekan egingo dute martxoko saioa, 19:00etan.

ELGETA

Apirileko errekreazioan parte hartzeko boluntarioak behar dira

L.Z. | ELGETA
Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek Intxortako Erresistentzia Eguna antolatuko dute apirilaren 24rako. Emakume erresistenteak eta errepresaliatuak omenduko dituzte aurtan.
Gertu dute egitaraua, eta osatzen doaz omenaldia jasoko duten emakumeen zerrenda. Antolatzaileek, orain, boluntarioak eskatu dituzte eguerdian Intxortako Ate parean egitekoa den errekreazioan parte hartzeko. "80 bat lagun daude izena emanda, baina boluntario gehiago behar ditugu. Dei berezia egiten diegu bai elgetarrei eta bai emakumeei", esan dute.

Interesatuak Elgetako udaletxean eman dezakete izena.
Egitaraua prest
Apirilaren 2an Mauro Saraviaren *Azken batailoia* argazki erakusketa ipiniko dute Elgetan, eta apirilaren 23an bisita gidatu berezia (18:00), musika performancea (19:30) eta Memoria-ren Gaua (22:30) egingo dituzte Perlak eta Gose taldeekin. Biheramunean, apirilaren 24an, errekreazioaz eta omenaldiaz gandi, herri bazkaria egingo dute frontoian. Menu berezia izango da: txitxirioak edo garbantzua, haragia, kontserbako arraina eta kanpainako gailetak. Salga daude txartelak.

ELGETA

Hogei bikote berdintasunaren alde korrika

Dorsal morea jantzi eta 40 bat lagunek egin zuten, domekan, berdintasunaren aldeko lasterketa Elgetan. Amaieran, salda banatu zuten antolatzaileek, eta jokoak egin zituzten plazan.



L.Z.

OHARRAK

ARGAZKI ERAKUSKETA
Ikusgai daude zeramika gelan Martxoaren 8rako Alicia Gartzia egindako argazkiak.

BASERRIKO PLASTIKOAK
Mankomunitateak hilaren 22an emango du zerbitzua. Eskaera egiteko deitu egin behar da aurrez: 943 76 25 47.

IPIUNEN ORDUA
Saio berezia liburutegian apirilaren 1ean. 16:40an 5 urtetik gorakoendako eta 17:25ean 2 urtetik gorakoendako.

TUTOREA KZGUNEAN
Apirilaren 6an, 09:00etatik 10:30era ikastaroak egiteko aukera kultura etxean.

ELGETA



ELGETAN BERBETAN

Mintzalagunak sagardotegira

Arrasateko, Bergarako eta Elgetako mintzalagunek sagardotegi irteera egin zuten barikuan. Elgetatik zazpi lagun joan ziren, eta primeran ibili ziren. Elgetan Berbetan egitasmoak, bestalde, gurasoendako aurkezpen bileran antolatu du apirilaren 7rako, eguna, Herri Eskolan, 17:30ean. Asmoa da gurasoendako propio sortutako talde bat martxan jartzea.

LEINTZ GATZAGA

Gorritz markatutakoak bakarrik izango dira jaiegun

Mediku-erizain zerbitzuari dagokionez, Leintz Gatzagan bertan emango dute, ohi bezala

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA
Aste Santuko eta Pazko Asteko egunetan hainbat zerbitzuek aldatu izaten dituzte; jaiegunetan, batez ere. Hori izango da, adibidez, Udalaren kasua: martxoaren

24tik 28ra itxita izango da udalerriko erakunde nagusia; eta Pazko Astearen, berriz, normal jardungo dute.
Era berean, iragarri dute martxoaren 31n, eguna, osoko bil-

kura egingo duela udalbatzak; besteak beste, Emakumeen Bira eskualdean egiteko hitzarmena sinatzea aztergai izango dute.

Medikua eta labidea
Bestalde, Osakidetzan galdetuta, han aditza eman dute osasun zerbitzuari dagokionez ez dela aldatetarik izango datozen egunetan eta Leintz Gatzagan bertan emango dutela zerbitzua.
Eta Labidea saltoki-elkargu-neak ere ohi moduan jardungo du.

ELGETA



L.Z.

Erain taldekoek 86 sinadura

Ekin diote Elgetan ere sinadura bilketari, ekainaren 12an egitekoa den herri galdeketa zuzenaren zuzenbidea aldarrikatzeko eta bermatzeko eskatuz. Barikuan eta domekan ipini zuten mahaia eta 86 sinadura jaso zituzten. Erroka, Elgetan, 200 sinadura batzea da. "la erdi lanetara iritsi gara. Eskerrik asko denoi!", adierazi dute bultzatzaileek.

ELGETA

Apirilaren 13an hasiko da umeendako euskal dantzen ikastaroa

Aurtan ere bi talde egingo dituzte, eta saioak eguaztentean izango dira. Espaloia kafe antzokian. 2006tik 2011ra jaio-takoek 18:30ean egingo dituzte entseguak, eta 1999tik 2005era jaio-takoek 19:15ean. Zabalik da izen-ematea udal-etxean zein liburutegian. Prezioa da hamabi euro.

Areto futbol txapelketako finala, bihar, frontoian

Astuan Villa eta Jaitxo dira, aurtan ere, herri mailako areto futbol txapelketako finale-rako sailkatu diren bi taldeak. Azken orduko aldatetarik ezean bihar arratsaldean jokatuko dute finala. Iaz Jaitxok irabazi zuen txapelketa. Ikus-teko dago aurtan nork eramango duen sari nagusia.

LEINTZ GATZAGA

Abian prozesuaren bigarren batzarra Ibarraundin bihar

Biharko, zapatua, egin dute hitzordua ezker abertzalea lantzen dabilen Abian prozesuaren bigarren batzarreko, 10:00etan. "Ezker abertzalearen jardunbideak nola garatu, eskaintza soberanista gauzatzeko aliantzak nola sortu" eta beste aztergai izango dituzte mahai gainean, eskoriatzarrekin batera.

LEINTZ GATZAGA

Bihar zozkatuko dute angula kiloa eta bertso afaria izango da gero

Bihar, 20:00etarako, Labidean ikusgai izango dira bihar bertan, zapatua, zozkatuko diren angulak, bizi-bizirik. Udalerriko Korrika batzordeak antolatuta, zozketaren ondoren bertso afaria egingo dute Soran etxean, Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi bertsolari ezagunak gonbidatuta.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

LAURA ALUTIZ

Arrasate / Oñalora Lizentziaduna, 18 solairu artea
687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

MIRARI KORTA

Aramaio / Azkoaga Auzoa 3 / 647 27 31 40

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NAGORE ARANBURU

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18, solairu artea, esk
685 72 01 42

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UNAI SERRANO

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 2ZM / 608 48 89 88

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55



Ezkerretik, Xabier Aranzeta, Mikel Moreiro, Jon Unamuno eta Jokin Etxabe txirrindulari bergarra. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

"Iazko lehen bost sailkatuak profesionaletan daude"

Domekan egingo dute ziklistendako erakusleihu onena bilakatu den lasterketa, Gorlako 42. Igoera

XABIER URZELAI | BERGARA

Aurkezpen-txartel ezin hobia du aurtengo Gorlako Igoera Peugeot Etormobil Sariak. Aspaldikoa da Bergarako lasterketan irabazten duenak profesionaletara salto egiten duela dioen esaera, eta, pauso hori ematea inoiz baino zailagoa den honetan, iazko bost azkarrenek bete dute aurtun ametsa. Jonathan Lastra (Caja Rural Seguros RGA) Jaime Roson (Caja Rural Seguros RGA), Julen Amezketa (Southeast), Victor Etxeberria (Radio Popular Continental) eta Cristian Rodriguez (Southeast) dira zorioneko bost ziklistak, eta horien pausoak jarraitu gura dituzte domekan irteera puntuan batuko diren oilarrek –10:00 Bergarako San Martin plaza–.

Hainbat nobedade

Xabier Aranzetak azaldu zuen asteleheneko prentsurrekoan iazko ibilbideari eutsi diotela: "Deskargan lanetan zebiltzalako ibilbidea aldatu behar izan genuen iaz, eta Udanatik eta Oñatitik pasatzea izan zen nobedadea. Hala, federazioak lasterketa luzeagoen

aldeko apustua egin duenez eta iazkoak kritika onak izan zituen, horrela utziko dugu".

Gainera, aurtun lasterketako babeslearen eskutik lehenengo igoeran ere azkarrena denak saria izango du: "Ausardiaren saria izena jarri diogu sari horri, eta Peugeot Etormobili eskerrak eman gura dizkiogu, baita gainontzeko

babesleei ere, eurak gabe ezinezkoa izango zelako lasterketa hau antolatzea".

Jokin Etxabe, lehiarako gertu

Antolatzaile eta babesleekin batera Jokin Etxabe ziklista bergarra ere hitza hartu zuen aurkezpenean, haren taldea –Seguros Bilbao Born– lasterketara ze asmorekin aurkeztuko den azaltzeko: "Taldea ona ekarriko dugu, egun garrantzitsua delako, eta esango nuke aurrean hiruzpalau gizon sartzeko moduan egongo garela. Ea horietako bat izan naitekeen".

Etxabe anaiekin batera Haritz Kortabarria (Parking geltokia) antzuolarra eta Julen Irizar (Ampo) bergarra lehiatzeko moduan egongo dira. Julen Umerez (Ampo) min hartuta dago, eta Iker Eskibel (Infisport) ere ez da lasterketan izango.

Azkenik, domekan Gorlan auto pilaketak ekiditeko Udalak bi autobus jarri ditu herritarrentzat, 10:00etan eta 11:15ean Burdinatetik irtengo dira (1,20 euro). eta 13:00etan eta 14:00etan jaitsiko dira.

ESANAK

"Lehen igoeran ausardiaren saria egongo da jokoan"

XABIER ARANZETA | LOKATZA

"Taldea ona ekarriko dugu, aurrean ibil gaitezke"

JOKIN ETXABE | ZIKLISTA

ESKUBALOIA

Ford Mugarri dagoeneko igoera faserako sailkatu da

Tolosaren kontra irabazi ostean, Euskadiko Txapelketan lider dagoen Ford Mugarri Arrasatek dagoeneko igoera faserako txartela lortu du. Lehenengo postuari eusteko borrokan zapatuan Siglo XX taldea hartuko dute Iturripen (18:00). Izarraitz Aloña Mendik ere etxean jokatu du, 16:30ean Tolosaren kontra.

PILOTA

Bailarako pilotari gaztetxoek hainbat final jokatu dituzte

Gaur, Oñatiko eta Arrasateko pilotariak izango dira aurrez aurre, (19:00) Oñatin, kadete mailako finalean. Uarkapen, berriz, Arrasateko eta Aretxabaletako pilotariak lehiatuko dira (18:30). Eta, Olalde klubeko infantilek Gipuzkoako 2. mailako finala jokatu dute domekan Tolosako Beotibarren (10:30) Beasaingo Murumendi klubaren kontra.

ERRUGBIA

Ligako lehen porrota jaso eta gero, Iruñearen kontra bihar Arrasate

Joan den astekoa denboraldiko lehenengo porrota izan zen Igor Iasiren mutilendako (26-14 Gernikaren kontra) baina ez zen porrot mingarria izan, taldea hustu egin zelako lokatzez betetako zelaian eta pozik egoteko moduko partidua egi zutelako. Fase berrian lider dagoen Iruñea hartuko dute bihar Mojategin (16:00).

FUTBOLA

Klubaren erabakiz Gorka Valle UDAko entrenatzaile izateari utzi dio

X.U. | ARETXABALETA

Sailkapenaren azken postuan, eta urtarilaren 10etik partidurik irabazi barik. Hori horrela, geratzen diren bederatzi partiduei begira erreakzio baten bila, UDAko zuzendaritzakoek entrenatzailez aldatzea erabaki dute, eta Gorka Valleri urte hauetan egindako lana eta erakutsitako konpromisoa eskertu diote. Hala, Igor Arenazak eta Jose Javier Barkerok heldu diote taldea kategorian mantentzeko erronkari.

Bigarren astez jarraian etxean jokatu du UDAk (domekan, 16:30), eta zaleen babesa behar dute erreakzio horretan lehengo pausoa emateko, Balma-sedaren kontra.

Aloñak azken sailkatuarekin

Ohorezko erregionalean Aloña Mendi seigarren postuan dago, eta azken sailkatu Oriokoren kontra jokatu dute bihar Orion (17:00).

Erregional preferentean, berriz, Mondrak eta Bergarak borroka polita izan behar dute bigarren postuagatik lehian, eta Aste Santuen bueltan derbia izango dute. Bihar, berriz, Bergarak beste kontrario gogor bat izango du etxetik kanpora, laugarren dagoen Urola. Mondrak etxean jokatu du Ikasberriren kontra (16:30), Antzuola liderraren zelaira joango da, eta Aretxabaletak Soraluze hartuko du Ibarren bihar (16:30).

ESKALADA



DEBAGOIENEN ESKALATZAILEAK

Boulder txapelketan bikain

Bilboko Piugaz eskalada-murruan 2016ko Euskal Herriko Bloke txapelketa jokatu zuten zapatuan. Bertan, Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko hainbat ordezkari hartu zuten esku, eta hainbat domina ekarri zituzten etxera. Aipatzekoa da seniorretan Mikel Linazisoro bergarra bigarren sailkatu zela, eta hirugarren izan zela Markel Mendieta arrasatearra.



Laboral Kutxa Baskonia FC Bartzelona Lassa

Partidurako 4 sarrera bikoitz ditugu

Martxoaren 23an, 20:30ean Buesa Arenan jokatu dute den partidurako.

PARTE HARTZEKO (MARTXOAREN 21ERA ARTE):

WhatsApp: [BASKONIA] [bazkidearen zenbakia]

688 69 00 07 zenbakira.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuetan biltzen direla. Datu biltzea honen helburu bakarra da indarrean dagoen arazapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, hasi zuzentzeko edo ezarritzeko, helbide honetara idatziz: klub@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

MUSHING-A

Europako Txapelketara joan ezinda, Espainiakoa irabazi du Armendarizek

Aurrekontu faltagatik ezin izan da Eskoriatzako musherra Norvegiara joan

X.U. | ESKORIATZA

Joan den asteburuan Beret-en jokotutako Espainiako Txapelketa irabazita agurtu du Itoitz Armendarizek (Eskoriatza, 1979) denboraldia. Eta, negu emankorra izan da, otsailean La Vaigade Traineau lasterketa ere irabazi zuelako, Alpetan. Baina, Europako txapelketara joan ez izanaren arantza ere geratu zaio: "Ez daukat horretarako aurrekonturik, hori da egia. Norvegiar izan da aurtengo txapelketa, eta hara txakurrekin joateko bost mila euro inguru behar dira, eta nire poltsikorako diru asko da hori".

Hala, iaz munduko txapelketa irabazita, eskoriatzarrak aurtan ezin izan ditu nazioartean indarrak neurtu: "Munduko txapelketan bosgarren sailkatu zenak irabazi du Norvegiar, horrenbestez, gauzak normal joan izan balira aurrean ibiltzeko aukerak izango nituzkeen", azaldu du.

Frantziako Alpetan nagusi

Otsail hasieran irabazi zuen La Vaigade Traineau, bederatzi etapaz osatutako proba. Eta, eskoriatzarra sei txakurreko modalitatean lehiatu zen: "Eguraldiak ez zuen lagundu, euria egin zue-



Itoitz Armendariz, joan den asteburuan, podiumean. | ROSA LASAGABASTER

lako, eta bederatzi etapetatik hiru bertan behera utzi behar izan zituzten. Handik sentsazio onarekin etorri nintzen, eta aurreko asteburuan bai, Espainiako Txapelketan Bereten elur onarekin ibili ahal izan dugu.

Espainiako Txapelketa bi etapetan banatu dute, biak 35 kilo-

metroko luzeraz –distantzia ertainean. "Zapatuan laugarren sailkatu nintzen. Bi minutu galdu nuen lehenarekiko, baina gustura ibili nintzen txakurrekin. Eta domekan oso lasterketa ona egin eta lehenengo postura egin nuen salto, bigarrenari hiru minutuko errenta aterata".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta-Balmaseda
Domeka, 16:30. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Oriko-Aloña Mendi
Zapatua, 17:00. Orio.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Urola-Bergara
Zapatua, 16:00. Iraeta.
Mondra-Ikasberri
Zapatua, 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Soraluze
Zapatua, 16:30. Ibarra.
Amaikak Bat-Antzuola
Zapatua, 16:30. Errotazar.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Tolosa-Arizmendi
Zapatua, 15:30. Usabal.
Mondra-Oriko
Zapatua, 12:00. Mojategi.

OHOREZKO GAZTEAK

Euskalduna-Aretxabaleta
Zapatua, 15:30. Andoain.
Aloña Mendi-Mondra
Domeka, 16:30. Azkoagain.

Bergara-Intxurre

Zapatua, 11:00. Ipintza.

OHOREZKO KADETEAK

Aloña Mendi-Eibar
Zapatua, 15:45. Azkoagain.
Urola-Bergara
Zapatua, 11:45. Argixao.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Atxurre
Zapatua, 17:45. Ibarra.
Eskoriatza-Elorrioko
Egubakoitza, 20:15. Eskoriatza.
LEHENENGO MAILA
Ataun-Pizza Per Tutti Mondrate
Egubakoitza, 21:00. Ataun.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Inter Altzako
Zapatua, 19:30. Manuel Muñoz.

GIPUZKOAKO GAZTEAK

Mondrate-Inter Fachadas
Zapatua, 09:30. Iturripe.

ESKUBALOIA

EUSKAL LIGAKO SENIORRAK

Ford Mugarri Arras.-Siglo XX

Zapatua, 18:00. Iturripe.

Izarraitz Aloña-Tolosa

Zapatua, 16:30. Zubikoa.

EUSKADIKO TXAP. EMAKUM.

Iturritxo Tab. Aloña-Pulpo
Zapatua, 20:00. Bermeo.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Bergara-Leizaran
Egubakoitza, 20:30. Labegaraie.

SASKIBALOIA

EBA

Take Tolosa-MU
Zapatua, 19:00. Usabal.

BIGARREN MAILA

Natra Oñati Aloña-Goierri
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

GIZONEZKO SENIORRAK

DKS-Soraluze Bergara
Zapatua, 18:00. Donostia.
Cafes Aitona-MU
Zapatua, 20:00. Donostia.

ERRUGBIA

SENIORRAK, 2. MAILA

ART-Iruñea
Zapatua, 16:00. Mojategi.

ZIKLISMOA

GORLAKO IGOERAREN 42. EDIZIOA

Domeka, 10:00etan hasita
Udalak autobusak antolatuta ditu
Gorlara igoetzeko (1,20 euro).
10:00etan eta 11:15ean irtengo
dira Burdinatetik.



ARTkoak ligan, Mojategin. | IMANOL SORIANO

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es



'Pikadero' filmeko Ben Sharrock eta Irune Gurtubai Master Class-ea ematen Arkupe aretoan. | HUHEZINEAMA

Zinemaren zirrarara ari dira bizi izaten Huhezineman

Zinemaz gehiago ikasteko eta euren lanak erakusteko aukera izan dute Huheziko ikasleek Huhezinemaren bederatzigarren jaialdian

IMANOL BELOKI | ARETXABALETA

Aste honetan, Euskal Film Laburren bederatzigarren Huhezine-ma jaialdia izan da Aretxabaletan. Huhezi fakultateko ikasleek antolatuta, hitzaldiak, film laburren proiektzioak eta *master class*-ak izan dira, besteak beste. Eguaz-tenean eman zioten hasiera jaialdiari, eta Andrea Vitoria eta Jon Garate ikasleak izan ziren aurkezle lanetan.

Aurtengo edizioari hasiera emateko, *Nueva vida* (2015, Kiro Russo) eta *Volando voy* (2015, Isabel Lambert) film laburrak proiektatu eta horien inguruan aritu ziren. Bi filmak 2015eko Donostiako Zinemaldiaren XIV. nazioarteko zinema ikasleen topaketan sarituak izan ziren.

'Pikadero' filmaren sekretuak
Ondoren, *Pikadero* filmeko Ben Sharrock zuzendariak eta Irune Gurtubai ekoizleak *master class* bat egin zuten. Bertan, filmaren sormen prozesuaren inguruan aritu ziren Aretxabaletako Arku-

pe aretora bertaratu zirenei azalpenak ematen. Gainera, euren ikasketen ibilbidea kontatuaz bat, entzuleen galderak erantzun zituzten.

Sharrock eskoziarraren lehen film luzea da *Pikadero*. Euskal Herrian euskal aktoreekin grabatutako euskarazko filma da, eta 2015eko Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten. Irune Gurtubai, berriz, Huheziko ikasle ohia da eta Sharrocken lehen film luzea ekoiztu du. Martxoaren 4a ezkerreko ikusgai dago filma Euskal Herriko zinema aretoetan.

Huheziko ikasleen proiektzioak
Eguen arratsaldean, berriz, Aretxabaletako hirugarren eta lau-garren mailetako lanen proiektzioa izan zen. Ikasleen sailean, guztira, hamabi ikus-entzunezko aurkeztu dira, eta guztiak proiektatu ziren. Lan hauez gain, Basque Culinary saileko lanak ere proiektatu ziren. MUko Donostiako Gastronomia Fakultatearekin gauzatutako lankidetzari

esker, hirugarren aldiz izan du lekua gastronomiak Huhezinema jaialdian.

Sari banaketa, amaitzeko

Gaur emango diote amaiera Huhezinemari, eta, finalisten emanaldi-diaz batera, sari banaketa egingo da. Epaimahaikideak: Martxelo Rubio aktorea, Begoña del Teso zinema-kritikari eta kazetaria eta Gorka Bilbao zinemagilea izango dira berau osatuko duten kideak.

Guztira, zortzi sari banatuko dira; sail ofizialean lau sari: Huhezinema saria (finalista bakoitzak 200 euro), Goiena saria, (450 euro eta kamera materiala erosteko 1.500 euro), Vertigo saria (400 euro) eta ikusleen saria (300 euro). Bestalde, ikasleen sailean, fikzio lan onenaren, dokumental onenaren eta ikusleen saria banatuko dira. Basque Culinary saria eta sail honetako ikusleen saria ere banatuko dira. Amaitzeko, Orly tabernan luntxa eta kontzertua egongo da.

'Mozkorra parregarri' opera satirikoa, besteak beste, Madrilen eta Gasteizen

J. B. / A. A. | BERGARA

Madrilgo San Ignazio elizara –*San Ignacio de los vascos* moduan ezagutzen da– eramango dute bergarrek, apirilaren 30ean, Peñafloordako kondeak idatzitako eta musikatutako opera. Errege Seminarioarekin lotura estua duen Madrilgo elkarte batek antolatu du, elkartearen 300.

urteurreneko ospakizunen barruan. "Euskalerraren Adiskideen Elkartearen bitartez hel-du zitzaigun proposamena. Garrantzitsua eta, era berean, berezia izango da, Xabier Maria Munibe Peñafloordako kondeak berak ere harremana izan zuelako eliza horrekin. Euskaraz antzeztuko dugu, azpiztituluekin

lagunduta", azaldu du Valen Moñuxek, taldeko kideak.

Beste hiru emanaldi gehiago

Astebete lehenago, apirilaren 23an, Gasteizko Principal antzokian izango dira: "Antzoki ederrretan egon gara, baina Principalen antzezte handia da. Aurrea begira beste pare bat ere baditugu lotuta: ekainaren 25ean Zumarragako Zelai Arizti antzokian egingo dugu eta azaroaren 12an Beasaingo Usurbe antzokira joango gara", dio Moñuxek.

Elena Irureta | Aktorea

"Mireia Gabilondok oso argi zuen aktoreongandik zer atera gura zuen"

Elena Irureta Amaia antzokian izango da etzi, (19:30) 'Florido pensil (neskak)' antzeztzen

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Frankismo garaiko eskola kontuak batu zituen Tanttaka taldeak orain 20 urte. Eskola berean kokatu dute otsailean estreinatu duten lan berria: *Florido pensil (neskak)*. Arrasaten eskainiko dute Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako lana. Sarrerak leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian eskura daitezke 15 eurotan.

Loli Astoreka, Gurutze Beitia, Teresa Calo eta Itziar Lazkano dituzu agertokian lagun.

Aspaldiko lagunak denak. Sekulako poza hartu nuen deitu zidatenean. Oso gustura gaude, harrera oso ona izan dugu.

Txikitako ikasgelan elkartu zareten bost emakume heldu zarete.

Zelako eskola zen gogoratzen hasten gara, eta, ume bihurtuta, nork bere kontakizuna egingen du. Familia burges batetik datorren Ana Mari Agirre neska bihurria naiz ni. Aktore bakoitzak hiru paper ditu: Ana Mari haurra eta helduaz gainera, apaiza ere banaiz ni. Pertsonaia asko agertuko dira: irakasleak, moja...

Antzezlanean kontaktzen dituzue-nak Elenak bizitakoak dira?

Zerbait bai, baina hainbestera-ko ez. Euskaraz berba egitea debekatuta genuen, baina gure eskolan ez ziren Lolik bere esko-



Elena Irureta. | M. DIAZ DE RADA

lan bizi zituen bestekoak.

Istoriogorrrak, baina barre egiteko asmoarekin kontaktuta.

Muntaia bizia da eta komedia moduan dago idatzita, bai. Jendeak oso ondo pasatzen du. Barreri eusteko lanak izaten ditugu guk ere.

Zazpi urte egin dituzu antzokietatik eta etxetik urrun.

Madrilen izan naiz azkeneko urteetan, bereziki, telesailetan lanean. Nekatuta nengoen eta etxera itzultzea erabaki nuen. Zortea izan nuen! *Florido*-rako eta *Eskamak kentzen* telesaile-rako deitu zidaten segituan.

Eskabetxera lanean gustura?

Bai, horixe! Han ere aspaldiko lagunak batu gara. Luxua da etxean eta giro onean lan egitea. Pozik gaude emaitzarekin.

GOIENA APP BERRIA

DESKARGATU DOAN !

- Albisteak eta agenda
- Telefono gida
- Parte hartzeko aukera
- Pertsonalizatzeko aukera

Available on the iPhone

App Store

Google play



goiena

Ganbara abesbatzaren eskutik Brahms-en 'Requiem' obra domekan Oñatin

Lau eskutara jotako pianoak eta bi ahots bakarlarik osatuko dute emanaldia

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Oñatiko Ganbara abesbatzak Brahms autorearen *Requiem* obra eskainiko du domekan, arratsaldeko zazpitan, Oñatiko San Migel parrokan.

Obra hau oso berezia da. Alde batetik, requiemak, normalean, latinez idazten dira, eta hau alemanez idatzita dago. Bestetik, oso kritikatu izan da. Izan ere, *requiem* hitzak hilberrientzako meza esan nahi du eta lan honek autoreak ez dio aipamen bat ere egiten Jainkoari, obra atea da. Brahms bere lagun Schumann-ekin eskaini nahi izan zion lana.

Obra zaila da, mamitsua eta harmoniak ondo landuta dituenak. Bi modutara eskaini daiteke: orkestra handi batekin edo ganbara moduan. Oñatiarrek bigarren aukera hori landuko dute, abesbatza, lau eskutara jotako piano bat eta bi ahots bakarlarik uztartuta.

Berez, orkestrarentzat konposatutako obra da, baina emanaldi honetan lau eskutara jotako piano batekin egiten du orkestraren instrumentazio lana, eta abesbatzak ahotsarekin eman ezin duena pianoarekin osatzen da. Azken finean, pianoak indar



Pasai Antxoko San Fermin elizan egin zuten emanaldia. | AITOR BIAIN

handia ematen dio obrari, eta ezinbesteko bihurtzen da lan hau erreproduzitzeko orduan.

Piano-jotzaileak Eli Mendiaraz eta Arantzazu Saiz dira. Bakarlariei dagokienez, baritono gisa Ander Simal arituko da eta Klara Mendizabal sopranoa izango da beste ahotsa.

Horrez gain, Arrasateko Gokobalu abesbatzako hainbat kidek eta Donostiatik gerturatuko diren hainbat abeslarik ere hartuko dute parte emanaldian.

Hain zuzen, martxoaren 13an Pasai Antxon estreinatu zuten

eta bihar, larunbata, Torrelavegan izango dira.

Abesbatzako zuzendari Aitor Biainen esanetan, oso pozik daude lehenengo emanaldian eskainitako mailarekin, eta ilusio handiarekin egingo diote aurre asteburuko bi hitzorduei.

Sarrerak salgai

Oraindik ere lortu daitezke sarrerak, Txokolateixan edota www.sacatuentrada.es webgunean, 10,20 euroren truke. Horrez gain, domekan bertan ere egongo dira salgai, sarreran.

'Río tinto' erakusketa ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan

E.A. X | BERGARA

Martxoaren 23an hasi eta apirilaren 10a bitartean, *Río tinto* izeneko argazki erakusketa izango da ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan.

Bost argazkilariren obrek osatzen dute erakusketa hau: Josu Fernandez, Josu Garai, Cesar Lera, Diego Lopez eta Carlos Mediavilla, hain zuzen.

Erakusketaren ideia sortu zen bost argazkilarik hauek Andaluziako Minas de Riotinto ingurura egindako bidaia baten ostean. Udalerri hark historia korapilatsua daukanez, argazkilariei interesa piztu zien inguruak, eta bertan ateratako argazkiekin erakusketa bat egitea erabaki zuten.

Bost artisten argazkiek badute nolabaiteko harremana elkarren artean, baina, oro har, argazkilarik bakoitzak bere bidea segitu du, modu independentean.

2014ko abenduan Donostian ere egin zuten erakusketa bera, Club Vasco de Camping Elkartean (CVCE).

Ordutegia

Asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Kontuan izan behar da tartean Aste Santua dagoela. Horregatik, martxoaren 24tik 27ra goizez bakarrik egongo da zabalik aretoa.



Argazkilariak Donostian, CVCEko presidentearekin. | CÉSAR LERA

'GALDEGAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa.

Hau da hurrengo saioaren aurrerapena.

Eskubaloiarekiko zaletasunak batuta



Ezkerretik eskuinera: Eli Pinedo, Uxue Zubiagirre, June Goenaga, Nerea Diaz (Oñatiko Txantxiku ikastolako ikasleak) eta Jokin Bereziartua (aurkezlea). | OIHANE ISASI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eskubaloian erreferente ukaezina den Eli Pinedo ere egon da *Galdegazte* saioan. Bera-Berako jokalaria klubaren arteko Europako txapelketatik kanporatua izan eta gutxira pasatu da Goiena Telebistako platotik. Espainiako selekzioarekin ere European ari da lehiatzen.

2012ko Londresko Olinpiar Jokoak izan dira orain arteko kirol ibilbidean bizi izan duen "esperientziarik politena". Azaldu duenez "oso egun intentsuak" izan ziren: "Egia bihurtutako amets bat izan zen". Eta espero du aurtengo Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan ere egotea: "Bost hila-bete eskas falta dira; amets hori ere bizitzeko ari gara lanean". Espainiako selekzioaren lehen aukeraketatik, berriz, ez du horren oroitzapen onik gordetzen: "Oso gaztea nintzen, 22 urterekin egin nuen debuta talde nagusiarekin. Oso urduri nengoen, zertarako gai nintzen erakutsi nahi nuen bueltatzeko. Berezia izan zen, baina ez nuen askorik gozatu".

Oñatiko Txantxiku Ikastolatik

Oñatiko Txantxiku Ikastolako Uxue Zubiagirre, June Goenaga eta Nerea Diaz izan dira elkarriketatzaileak. Eskubaloia jokalaria dira eta "oso gustura" aritu dira euren erreferentea elkarriketatzen: "Oso esperientzia polita izan da", adierazi dute.

Kazetari lanetan jardun zuten hiru gaztetxo oñatiarrek hainbat xehetasun jakin nahi izan zituzten; partiduen aurretik erritualik duen, kasu: "Saiatzen naiz ondo deskantsatzen, dagokion orduan bazkaltzen... Baina jokatu aurretik ez dut ezer berezirik egiten; ez naiz galtzerdiak alderantziz jarri edo beti bularretako bera erabiltzen duen horietakoa".

Bere ibilbide luzean lesio larri bakar bat izan du Pinedok: "Lesioekin zorte handia izan dut. 17 urterekin belauneko lotailu gurutzatua apurtu nuen eta ordutik ez dut arazo handirik izan. Duela bi urte oin-zolakoko faszitis bat izan nuen, baina ez zen larria izan". Emakumeen kirolean bidea ireki duen horietakoa da Pinedo: "Nire garaian, Conchita Martinez eta Arantxa Sanchez Vicario ziren telebistan agertzen ziren emakume bakarrik".



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA

Eguaztena, martxoak 23
22:00etan.

EZKONTZAK 2016



Jatetxeak, betikoak berritasunekin
Lentzeria, Eroso ezkontza egunean
Estética, Azala distiratsu egon dadila
Garraioa, Ezkontzara giro onean, seguru eta kezka barik
Aurkitu ezazu zuretzako propio eginiko eraztuna
Eztei-bidaia Asian eta Hego Amerikan
Lehengo argazki albumak datoz bueltan

ANE IDIGORAS - BEGIRA

Sikol
lentzeria

Tel.: 943 79 89 32
Olarte kalea 7 - ARRASATE



Bila gaitzazu
Facebooken
eta Instagramen



Jatetxeak, betikoak berritasunekin

ZELAI ZABAL

Musika jatetxearen kontura ehun lagunetik gorakoetan

Esklusibotasuna –egunean eztei bakarra–, gertuko tratua eta arreta pertsonalizatua nabarmendu gura ditu Arantzazuko Zelai Zabal jatetxe-ko Maria Pilar Elortzak: "Ezkon- gaiek aukeratzen dute guztia. Menua euren erabakia da eta beti gaude gertu euren eskaere- tara moldatzeko".

Ehun urtetik gora dituen jatetxean 180 lagunendako jangela eroso daukate, eta, ehun lagunetik gorako banketeen kasuan, musika jatetxearen kontura da. Dantzaldirako musika ziurtatu bakarrik ez, nahi duten ordura arte jarraitzeko aukera eskaintzen die, gainera, gonbi- datuei.

Arantzazu azpian kokatutako jatetxea leku paregabea da ospa- kizunetarako: "Pentsa, ezkontza gurean ospatu duten bikote asko- ren seme-alaben ezkontzak ere ospatu izan ditugu", dio Elortzak, pozik. Izan ere, 1898az geroztik dihardute lanean, beti ezkongaien beharretara egokituz eta zerbi- tzurik onena eskainiz.



Alberto Elortza sukaldaria, Zelai Zabal jatetxean.

KANTABRIA

Sukalde tradizionala oinarri duen jatetxea Arrateko bihotzean

Laugarren belaunaldiaren ardurapean dago Eibarko Kantabria jatetxea, eta 1974tik hona ezkontzeko era asko aldatu dela dio Lorea Zubiaurre ugazabak: "Lehen, berdintsuak izaten ziren guztiak; orain, oste- ra, bata besterekin ez du zeri- kusirik; norberarena berezia izan gura da". Hori lortzeko, arreta pertsonalizatua eskain-

tzen dute: "Menua aukeratu aurretik, dastatzeko bazkari bat oparitzen diegu ezkongaei eta haien gurasoei. Sarritan ez dira bat etortzen aukeratutakoarekin, eta guk aholkulari lanak egiten ditugu". Sukalde tradizionala oinarri izanda, arrainak dira Kantabriako espezialitate; hala ere, beste edozein menutara ego- kitzen dira.

Bista ikusgarriak dituen 170 bat lagunendako jangela dauka Arrateko bihotzean dagoen jate- txeak. Hala, hango santutegian ezkondu, eta zuzenean joan dai- tezke jatetxera. "Bankete baka- rra izaten dugu ehun lagunetik gorako ezteien kasuan, eta dan- tzaldia berandu arte luzatzeko aukera ematen diegu", jakina- razi du Zubiaurrek.



Maite Iriondo eta Lorea Zubiaurre ugazabak, Kantabriako jangelan.

LASA

Udaberrian ikusgarri egoten den lorategian ospakizuna

Bergarako Lasa jatetxea paraje ezin dotoreagoan dago, eta horixe bera nabarmendu gura du Koldo Lasa ugazaba eta sukaldariak: "Leku ezin hobean dago jatetxea. Erai- kinak monumentu nazional izen- dapena du eta lorategi ederrez inguratuta dago", dio, eta gai- neratu du: "Udaberrian, benetan ikusgarri egoten da. Eta nahi

izanez gero, ezkontza zibilen ospakizuna ere egin dezakete hor bikoteek; alfonbra gorria ere jartzen diegu". Izan ere, gus- tua eta luxua denon eskura egon daitekeela uste dute Lasako ardu- radunek.

Ozaeta jauregiak 250 lagu- nendako jangela dauka, eta jaiak jarrai dezan aretoa eskaintzen diete dantzaldirako. Erosotasu-

na ziurtatze aldera, autoendako parkinga ere badu.

Esklusibotasuna eta tratu pertsonalizatua ziurtatuta dago; batetik, egunean eztei bakarra ospatzen dutelako, eta bestetik, bikotearen esanetara daudelako menua gertatzeko orduan. Hain zuzen, jatetxeak eztei-bankete onenaren Gipuzkoako saria ira- bazi zuen 2009an.



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...



**Ezkontzetan
espezializatuta
dagoen jatetxea**



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi
Hotela - Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

Iraila, urria, azaroa eta abenduan dena barne duen 90€-ko pack-a

Zerbait garrantzitsua bada ezkontza batean, jatetxearekin asmatzea da. Horretarako, eskaintzen dituzte paraje dotoreak, eskusibotasuna, gertuko tratua eta berritasunez betetako betiko sukaldea.



Lasa jatetxeko Koldo Lasa lorategian.

ETXE-AUNDI

Dena barruan duen 90 euroko packa eskura

Banketeetan espezializatu dago Oñatiko Etxe-Aundi jatetxea. Torre Auzon kokatutako XIII-XIV. mendeko jauregiak eskaintzen ditu egun ahaztezina izateko osagai guztiak: lorategiak, parking handia, 220 gonbidaturendako lekua eta terraza zabala, besteak beste.

Marga Romariz ugazabak dio bikoteen zerbitzura izaten direla:

"Zalantza askorekin etortzen dira sarritan, eta gu gomendioak ematen ahalegintzen gara. Baina era berean, askatasun osoa ematen diegu amestu duten ezkontza hori izan dezaten". Eta gaineratu du: "Irakokizunak egiten dizkiegu; adibidez, osagarriak gogorazten dizkiegu, ezerk ez dezan hutsik egin egun handian, hala nola koktela, barra libre..."

Gastronomia zaindua eta aukera zabalekoa daukate, eta, menuari dagokionez, elaborazio handiko platerak.

2016an eta 2017an, gainera, promozio berezia egiten dabilta: "Dena barruan duen 90 euroko packa eskaintzen gabilta. Ez noa gehiago argitzera, ezustekoa delako, baina bikoteek oso gustura hartzen dute", dio Romarizek.



Etxe-Aundiko sukaldeburu Eloi Iartza.

GURE AMETSA

Berrikuntzetara adi dagoen eskarmentu handiko jatetxea

Leintz Gatzagako paraje dotorean kokatuta, lorategi handia inguruan duela, Gure Ametsa jatetxeak bikotea du ardatz. Hori horrela, arreta pertsonalizatua eta eskusibotasuna eskaini gura izaten die egun berezi horretan, Josune Ibabe ugazabak dioen legez: "Egunean eztei bakarra izaten dugu, eurak direlako protagonista. Gainera, biko-

tearen gustuetara eta aurrekontura moldatzen gara", eta gaineratu du: "Detailerik txikiena ere zainduz, ezkon berriek bere egunaz gozatzea da gure helburua. Horregatik hain zuzen gara ezkontzetan erreferente".

Azken urteotan ospakizunak gero eta pertsonalizatuagoak direla uste du Iabek, eta ez dagoela estandarrik ezta mugarik ere dio:

"Gero eta joera gehiago daude, ezkontzen gainera blogak ere gero eta gehiago dira eta. Horregatik gu ere egunera egoten saiatzen gara". Hala, ukitu modernoak dituen euskal sukaldaritza tradizionala da oinarri Gorka Bolinagak zuzendutako sukaldean. Eta plater gozoen artean ospakizuna bera da beti protagonista Gure Ametsan.




Gure Ametsako Josune Ibabe eta Gorka Bolinaga.



*Lenceria
eta
Korseteria*

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44
OÑATI



Egun berezi horretan...detalle guztiak dira garrantzitsuak

Ezkontzetarako edertasun-programa **pertsonalizatua**.
Etorri, konpromiso gabe informatuko zaitugu.



Erdiko kalea 54 behe. 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09 www.amagaraestetikazentroa.es

Eroso ezkontza egunean

Soineko eta traje polita janzteaz gain, barruko arropa eroso eta polita izatea ezinbestekoa da

Barruko arropa ikusten ez bada ere, polita izan behar du beti ezkontza egun berezi baterako. Bularretako multiposizionalak daude merkatuan, edozein soinekotara molda daitezkeenak. Izan ere, soinekoak eta trajeak bereziak diren moduan, barruan jantzitako arropak ere egokia izan behar du beti. Erosoa eta sexya izatea ezinbesteko da ezkontza egun perfektu baterako. Aukeren artean, marfil koloreko barruko arropa da dotoreena, kolore zoragarria da, edozein soinekorekin eder eta zoragarri sentituko baita emaztegaia; eta azken batean, garrantzitsuena da hura ondo sentitu eragitea, ezkontza-egunean ahalik eta ondoen eta batez ere, eroso senti dadin, arropak eragindako buruhauste barik.

GIZONAK ERE EROSO

Jakina, gizonen erosotasun eta edertasuna ere berebizikoa da egun horri begira. Traje ilunak eta barruko arropa motzak modan daude halako egun berezietarako. Izerdia gutxitzen edo sikiera disimulatzen eta edertasuna loratzen laguntzen dute halakoek.



Barruko arropa sexy eta eroso ezinbestekoa da.



Erosotasuna lehentasun

Garrantzitsua da emaztegaientzat soinekoa aukeratzekoan barruko arroparekin bat egitea. Barrutik ondo geratzen dena kanpotik ere ederto geratuko baita. Horretarako, norberari egokien datozkion neurriak dituztela dio Yolanda Sanchezek, Sikol lentzeria dendako arduradunak: "Emaztegaientzat, hobekien datozkion tailuak ditugu dendan; garrantzitsuena bera ondo sentitzea da, eta, batez ere, eroso egotea. Egun garrantzitsua da, eta norberaren gorputzera moldatzea da helburua. Egun osoa bularretakoa ondo jartzen ez ibiltzeko, garrantzitsua da erabaki hori ondo hartzea". Tirante multiposizionalak erabilia, emaztegaiek ez du bularretakoa ondo jartzen denbora luzeagoa igaroko.

Hainbat truku gizonen trajeentzat

Gizonen trajeentzat truku bat du Sikol dendak, bero handia egiten duen ezkontza egunetan izerdiaz ahazteko: traje berezi batzuk izerdia ekiditeko materialaz landuta daude. Kolore ilunak dira egokienak, eta beti politak. Boxer-ei dagokienez, orain motzagoak hobeto moldatzen dira.

Askotariko lentzeria fina eta berezia


Egun berezia da ezkontza eguna bikoteendako. Horregatik, ezkongaiak daramaten jantzia aproposa izatea gura duten neurrian, barruko arropak ere berebiziko garrantzia daukala azaldu du Kuttun mertzeria-dendako Asun Arroio. "Aukeratzten dituzten soineko eta trajeak bereziak diren moduan, barruko arropak ere aproposak izan behar dute. Hala, behin ezkontza eguneko arropa aukeratutakoan, ezkontideak barruko arropa egokia erostera etortzen dira".

Oñatiko Kuttun mertzeria-denda zerbitzu horrekin konprometituta dago eta hainbat estilo eta gustutako moda-modako eskaintza dauka gizonezkoendako zein emakumeendako.

Emakumeei dagokienez, marfil koloreko lentzeria aukera finena dela dio Asun Arroio. "Egun berezi horretan, eroso egoteaz gain, apain egon gura dute ezkongaiak. Kuttunen, soinekoari bikain egokitzen zaion askotariko aukera aurkituko dute. Gizonezkoendako ere boxer estiloko galtzontzilloak ditugu". Baina zuri klasikotik aldendu gura dutenendako ere aukera zabala dutela kontatu du Arroio.



Marfil koloreko barruko arropa egokiena eta politena da.



LASA
jatetxea

250 lagunentzako jantokia • Gustua eta luxua denon eskura • Bezeroentzako parking-a • Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...

Ozaeta jauregia - **BERGARA** • Tel.: 943 76 10 55

www.restaurantelasa.es

Azala distiratsu egon dadila

Emaztegaia azal zaindu eta polita erakutsi behar du; horretarako, gorputzeko hidratazioa ezinbestekoa da

Ezkon egun berezi baterako, azala hidrataturik izatea ezinbestekoa da. Tratamendua hila-bete lehenago hastea komeni da, egunean bertan azala argitsuago egon dadin. Makillajeak ere indar handiagoa izango du aurretiaz azala ondo hidratatuz gero. Tratamendu egoki eta pertsonalizatuak erabiliz, emaztegaia eroso eta eder sentituko da inoiz ahaztuko ez duen ezkon egunean. Aurpegiaz gain, gorputz osoa hidratatzea ere ezinbestekoa da, bizkar eta eskote eder eta sexya erakutsi ahal izateko.

AZKAZAL DISTIRATSUAK

Manikura eta pedikura behar-beharrezkoak dira egun zoragarri horretarako, argazkietan azkazalak ere ikusten baitira. Manikura dotore batekin soinekoa edertu dezake emaztegaia. Horrez gain, pedikura ere garrantzitsua da. Emaztegaia sandaliak jartzen baditu, oin eder eta politak erakutsi ahal izateko. Sandaliak jantzen ez baditu ere, komeni da pedikura egitea. Ikusten ez bada ere, barrutik eder egon behar du emaztegaia, kanpoak ere dizdiz egin dezan.

Azal distiratsua egun berezi baterako

Egun asko igarotzen dituzu, seguruenik, ezkon egun perfektua prestatu nahian. Lirainen, tratamendu eta hidratazio metodo egokiak erabiliz, emaztegaia perfektua izan zaitezke. Mari Carmen Pardo arduradunaren hitzetan: "Azala zainduta egotea da garrantzitsua; Lirainen bi hilabete lehenago hasten gara tratamendua prestatzen, ezkon egunean emaztegaia azala tertziopeloa bezala izan dadin". Bekainen diseinu egokia ezinbesteko ikusten du ugazabak: "Bekainak ongi depilatuak izatea komeni da, baita forma egokiarekin ere. Bekain guztiak ezberdinak dira, eta tratamendu pertsonalizatua izan daiteke. Bi aste lehenago egitea komeni da". Bekainak txukundu ostean, krema hidratatzaile egokia erabili behar da beti, gorritasuna alde batera uzteko. Makillajea ere ezinbestekoa da egun perfektua izateko; naturala eta egokia izan behar du.

Solariumera joateko aukera

Lirainek solarium saioak eskaintzen ditu, hilabete eta erdi lehenago hasita, ezkontza egunean brontzeatu eder eta zoragarria erakusteko.



Lirain estetika zentroak tratamendu bereziak eskaintzen ditu.



Manikura eta pedikura beharrezkoa da emaztegaia errentzat.

Manikura eta pedikura, ezinbesteko

Manikura eta pedikura beharrezkoak dira ezkon eguna perfektua izateko. Azal garbi eta ederraz gain, azkazalak ere dotore apaindu behar direlako. Pedikura ere ezinbestekoa da, emaztegaia sandaliak jantziz gero. Amagara estetika zentroan ezkontzetarako programa espezializatua dute, Maite Agirre arduradunak dioenez: "Emaztegaia bakoitzaren azalari erreparatzen diogu, lehenik eta behin. Azal mota ikusirik, tratamenduarekin hasten gara, azal distiratsu eta leuna izan dezan". Horrez gain, azala hidratatuta izanda, makillajea hobeto egokitzen da azalera: "Ezkon eguneko makillajea egokia izateko, aurretiaz eginiko tratamendua ezinbestekoa da".

Eskotea eta bizkarra hidratatuz

Azal hidratatu eta distiratsua ezinbestekoa da egun berezi hauetarako. Eskote eta bizkar dotorea izan behar du emaztegaia. Horrez gain, emaztegaia gustu eta beharretara bideratzea garrantzitsua da.

Gure Ametsa

Jatetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!



943 71 49 52 • Leintz Gatzaga • www.gureametsa.es



Leintz Garraioak enpresaren autobus bat.

Ezkontzara giro onean, seguru eta kezka barik

Ezkontza egun berezia izan ohi da ezkon-
gaientzat, noski, baina
baia gonbidatuentzat
ere. Ospatzeko eta
ondo pasatzeko aukera paregabea
da; ahal bada, kezkarik gabe.
Hori dela eta, egunak eskatzen
dituen joan-etorriak egiteko, zer
hobeto autobus zerbitzua baino:
erosoa, segurua eta atsegina.

Autoa etxean utzita, bermatuta dago guztien segurtasuna. Gainera, bidaia modu atseginean eta lagunarteko giroan egiteko aukera eskaintzen du autobusak.

BEHARRETARA EGOKITUTA

Arrasateko Leintz Garraioak konpainiak eskarmentu handia dauka ezkontza eta antzeko ospa-

kizunetarako zerbitzuak eskaintzen. "Nik autobusa gomendatzen dut, lasaia ibiltzeko eta arazorik ez izateko. Gainera, autobusean joanda, jendea aldeztetik elkartu ohi da eta giro hobea izaten da", dio Leintz Garraioak enpresako Lydia San Martinek.

Horrelakoetarako 55 eserlekuko autobusak dituzte, eta joan-etorrien ordutegia eta ibilbidea bezeroaren arabera izaten da.

"Gehienetan, lehenik, gonbidatuak ezkontza-lekura eramaten ditu autobusak; handik ateratzean, jatetxera; eta handik etxera edo parranda lekura itzultzen dira", dio San Martinek.

Urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan eskaintzen du zerbitzua Leintz Garraioak-ek.

Aurkitu ezazu zuretzako propio eginiko eraztuna

Zalantzarik gabe, bitxiak dira -eta bereziki, eraztunak- ezkontza egun bateko elementurik garrantzitsuenetakoak. Baiezkoa eman ostean, ezkontuek luzaroan soinean eramango duten bitxia da, eta ezinbestekoa da norberaren gustukoa izatea.

Gaur egun, urre arrosa zuria-
rekin batera edota urre horia
zuriarekin, horiek dira ezkontza
eraztunetan arrakasta handien
izan ohi duten koloreak. Hala
ere, aukera gero eta zabalagoa
da, eta gaur egun pertsonalizazioa
da ezkongaien eskatzen dutena.

NORBERAREN GUSTURA

Hori ziurtatzeko, teknologia berrien laguntza eskura dugu gaur egun. Arrasateko Zubiaga bitxi-dendan, Internet bidez nork bere eraztuna aukeratu eta moldatu dezake, bitxia erabat pertsonalizatua izan dadin.

Modu honetan, bezeroak eskaintza ikus dezake, eta gustuko duenari nahi duen moldaketak egin: harria kendu, ipini, kolorea hautatu... eta hala, nork bere eraztuna diseinatzeko du ordenagailu edo tableta bidez, eta momentuan jakin dezake egin duen aukeraketaren salneurria. Hala, berak diseinatutako bitxi hori egingo diote bitxitegian.

Bitxien arloan erreferente da Zubiaga bitxi-denda, eta urte askotako esperientzia da euren bermea. Hala, bezeroak trataturik adeitsuena eta gomendiorik onena topatuko ditu han.



Seber Altuben dago Zubiagaren denda berria.



Gustukoa izan behar da.



Urre arrosa modan dago.



Pantailan aukeratutakoa fisikoki ere ikus daiteke dendan.



Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com

- Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
- 180 gonbidaturendako jangela.

1898a ezker
ZUEN ZERBITZURA

EZKONTZAK
ZUEN EGUNERAKO TXANDA ERRESERBATU!!



Begira
argazkilaritza



facebook EN
GAUDE

943 53 49 45
ILARGI PLAZA 1
ARETXABALETA

ARGAZKI DESBERDINAK...

Eztei-bidaia Asian eta Hego Amerikan

Eztei-bidaia ahaztezinak antolatzen dituzte ezkongaiak. Ametsetako bidaia elkarrekin prestatuta, momentu gogoangarriak bueltan ekartzeko asmoz.

Argentina ezagutzen hilabete batean

Mikel Aramendik eta Oihana Olasolok hilabete pasa zuten Argentinan eztei-bidaian. Lurralde handia izanik, hilabete batean, lau urtarotatik igarotzeko aukera eman zien, gainera. Bidaia Buenos Aiestik hasi zuten, Puerto Madrynen jarraitu, pinguinoak eta baleak ikusiz, eta planetako herririk australenera joan ziren, Ushuaiara. Bertatik, El Calafera joan ziren Perito Moreno eta bi glaziar ikustera eta handik El Chaltenera joan ziren trekking egitera. Paraje ederrak ikusi ostean, iparralderanzko bidean, Bariloche izan zuten hurrengo geltoki, zazpi lakuen ibilbidea, San Martin de Los Andes... paraje zoragarriak ikusi zituzten. Bidaia bukatzeko, Iguazuko ur-jauziak ikustera joan ziren.



Iguazuko ur-jauziak bisitatu zituztenekoan.



Patagonian, Perito Moreno glaziarrean.



Iker Ullibarriarana eta Ainhoa Sagasta, Ko Phi Phi irla zoragarrian.

Arrasatetik Thailandiara paradisia ezagutzera

Iker Ullibarriarana eta Ainhoa Sagasta Thailandiara joan ziren eztei-bidaian, hamabost egunerako. Lehenengo bi gauak Bangkoken eman zituzten, Khao San Road inguruan. Tenplu ugari ikusteko aukera aprobetxatu zuten; Kwai ibai gaineko zubia pelikula grabatu zen lekua, esate baterako. Hegazkin bat hartuta iparraldera joan ziren, Chiang Mai-ra. Bidaia gehien gustatu zitzaion herria; han, Muay Thai espektakulua ikusi zuten, masaje thailandiarrak hartu zituzten... Beste hegazkin bat hartu eta Phuket-era joan ziren, Ko Phi Phi eta Ko Tao irla zoragarriak ezagutzera.



Chiang Mai-n elefante gainean ibiltzeko aukera izan zuten.

Zubiaga
Bitxitegia • Erlojutegia

Seber Altube plaza 1
Arrasate
943 79 19 25

Leintz
GARRAIOAK, S.L.

Urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak eta abar.

Leintz Garraioak S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com

KANTABRIA
Jatetxea

Zure ezkontza,
zuk gura duzun moduan

Arrateko gaina. 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 12 62 • www.kantabrijatetxea.com

Lehengo argazki albumak datoz bueltan

Ezkontza egunean hutsik egiten ez duen gonbidatua izaten da argazkilaria, eta ezkongaien esanetara egoten da. "Ideia garbirik gabe baldin bada toz laguntzen diegu, baina euren esanetara egoten gara, eurek esaten digute zer-nolako argazkiak gura dituzten, noiz atera, ezkontza egunean zer erretratatu edo materiala ze euskarritan gorde, adibidez", dio Aretxabaletako Begira argazkilaritza dendako Ane Idigorasek.

Ezkongaien argazkiak gehietan ezkontza egunean bertan ateratzen dituztela adierazi du Idigorasek. Bideoak gutxitan grabatzen dituztela aitortu du, oraindik argazkiek pisu handiagoa dutela. "Albumetan gorde gura dituzte. Azken urteetan digitalak egin ditugu gehienak, baina azkenaldian album tradizionalen eskaerak nabarmen egin du gora. Gainera, argazkietan ere egon da aldaketa. Lehen erretratu asko ateratzen genituen. Orain, aldiz, momentuak izoteko eskatzen digute", dio Ane Idigorasek argazkilaria. Sumatu duen beste aldaketa bat da dagoeneko ezkongaien ez dutela argazkilari zerbitzua urtebete lehenago hartzen; ezkontza eguna baino bi hilabete lehenago lotu duen bikoterik ere ezagutzen du.



Maikel eta Eneritz zelai baten erdian elkarri helduta.



Eneritz eta Maikel ibilgailu zahar baten gainean.



Oihana eta Mikel bizkarrez.



Rober eta Nagore emaztegiak lan egiten duen tabernan.

LASER DEPILAZIOA

Gozatu zure azalaren leuntasunaz

LASER PLATAFORMA

Alejandrita laserra
Lightsheer diodoa
Argi Pultsatua (IPL)

Eskaintza	Saioa	Bonua
Hanka osoak+izterrondoak+besapeak	175 €/saioa	73 €/hilean
Izterrondoak + besapeak	99 €/saioa	42 €/hilean
Hanka erdiak	89 €/saioa	37 €/hilean

Saioak 3 hilabetez behin

Errepaso bat doan

Emaitza bermatuak

Zergatik LIRAIN?

Emaitzak
Segurtasuna
Erosotasuna
Berrikuntza
Bermea

BONUA

+ 5 saio

+ 1 doan

Neurrirako finantzazioa,
12 hilabete arte interesik gabe

www.lirainestetika.com

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

Bixente Ferrer, 1 Arrasate
Tel.: 943 79 52 17

Miren Fernandez | Piano-jotzailea

"Emakume gehiago behar ditugu; polarizazioa dago gaur egun generoan, eta hori hautsi egin behar dugu"

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Miren Fernandez (Oñati, 1994) duela hamahiru urte hasi zen pianoa jotzen. Batxilergoko bigarren mailan musika eskolara joateari utzi bazion ere, Oñatiko musika taldeetan teklatura jotzen ibili izan da. Josu Zubia abeslariarekin jotzen dihardu eta Oñatiko jaietan Ska-P taldearen bertsioak jotzen ere aritu zen.

Zergatik pianoa?

Etxean geneukalako; nire ahizpak ere pianoa jotzen zuen, eta ni ere animatu nintzen. Zortzi urterekin hasi nintzen Musika Eskolan, ume gehienak adin horrekin hasen baitira musika eskolara joaten. Batxilergoko bigarren mailan utzi nuen, unibertsitatera joan behar bainuen zetorren kurtsoan. Denbora dezente egon nintzen pianoa jo gabe, alde batera utzi nuen, Josu Zubiak bere taldearekin jotzeko eskatu zidan arte; Josurengatik izan ez balitz, ez nuen pianoa jotzen jarraituko.

Nolakoa izan da Josu Zubia-rekin taldean egotea?

Oso gustura egon naiz; ostiraleko entseatzeko dugu, eta, bere abestiak jotzen ditugunez, erraza izan da, eta denon artean oso ondo moldatzen gara.

Beste talderen batean jo izan duzu?

Bai; pasa den urtean, Oñatiko jaietan, Errosarixo Bixamona egunean, Ska-P musika taldearen bertsioak jo nituen lagun batzuekin batera. Teklatura jo nuen eta oso ondo pasa nuen, erraza izan baitzen erritmoa jarraitzea. Etorbizunean beste talderen batean jotzea gustatuko litzaidake, musika estilo asko baitaude oraindik herrian entzun ez ditugunak.

Pianoaz aparte beste instrumenturik jotzen duzu?

Nire aitak gitarra jotzen du, eta ni ere entseatzeko hasi nintzen gitarra oparitu zidanean, baina oso gutxi jotzen dut. Horretaz gain, sintetizadore bat ere badut eta esperimentatu egiten dut horrekin.

Zer da zuretzat musika?

Musikak zeresan handia izan du nigan txikitatik, bizitza erdi baino gehiago daramat pianoa jotzen eta oso garrantzitsua da niretzat. Nire aitarekin oso oroitzen politak ditut autoan musika entzuten.

Kontzertu bat hastear dagoela, nola sentitzen zara?

Oso urduri; urteak pasa ahala

uste dut lasaiago egoten naizela, baina beti jarri izan naiz oso urduri. Txikitik, musika eskolatik piano jaialdietara joaten ginenean, erabat urduri jartzen nintzen, eta, askotan, irakasleak ez joateko ere esaten zidan, nire urduritasunarengatik.

Ganbara abesbatzan ere ibili zara; nola hasi zen dena eta nolakoa izan da esperientzia? Bederatzi urterekin hasi nintzen bertan. Nire amak eman zidan horren berri; abesbatza talde bat sortu zela esan zidan, eta animatu egin nintzen. Oraindik entseatzeko jarraitzen dugu, ostiraletan eta igandeetan.

Baduzu ohiturarik piano jaialdiak edo kontzertuak ikustera joateko?

Piano jaialdietara joateko ohiturarik ez daukat. Herrian ikuskitzen bat dagoenean joan izan naiz, Santa Ana Antzokira, baina hori ez da askotan gertatzen. Kontzertuei dagokienez, BBK Live jaialdira joatea asko gustatzen zait. Pasa den urtean hiru egunez joan nintzen, eta aurten go hiru eguneko bonua erosi nuen orain dela aste batzuk.

Nola ikusten duzu musikaren etorkizuna eta orokorrean musikarena?

Emakume gehiago behar ditugu musikan; herrian emakumez osaturiko oso talde gutxi ikusten ditut, eta hori aldatzea gustatuko litzaidake. Polarizazioa dago gaur egun generoan, bai musika motetan. Rol finko batzuk daukela dirudi, baina ikuspegi hori aldatu egin behar dela uste dut. Hala ere, gaur egun, herrian mugimendu handia dago eta hainbat taldek estilo ezberdinetara jo dute; askotariko taldeak daude, eta horrek asko poztzen nau. Estilo ezberdinak joz herri-tarrei musika ezberdina erakustea gustatuko litzaidake. Polarizazioa hautsi behar dugu musikan.

PERTSONALA

Piano-jotzaile bat: Ray Manzarek.

Pianoa jotzeko leku bat: Nire logela.

Pieza bat: Claude Debussy-ren *Clair de Lune*.

Musika talde bat: Tame Impala.

Kontzertu bat: Ganbara Txikiren lehen

jaialdia.

Film bat: *El viaje de Chihiro*.

Janari bat: Arrautzak patatekin.

Bizitzeko leku bat: Berlin.

Oñatiko txokorik gogokoena: Torrealde.



Miren Fernandez, kontzertuetan erabiltzen duen teklatura jotzen.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zubillaga (Oñati). Eraikuntza berria. Bi logela, komuna, sukaldea, egongela, 35 metro koadroko terraza. 115 metroko lorategia. Garaje itxia. Igogailua garajetik. Guztiz jantzita. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 660 04 06 14 edo 665 72 18 54

102. EROSI

Bergara. Erdialdean etxebizitza erosiko nuke. Hiru logelakoa eta garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 29 37 04

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Herri erdialdean bi logelako etxebizitza berria ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667 31 37 45

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza bila gabiltza. Gela bakarrekoa, bikoa edo hirukoa. Bikote euskalduna. Eskerrik asko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 664 54 53 37

Bergara. Bi logelako etxebizitzahartuko nuke errentan. Hilean 350 euro ordain ditzaket. 632 77 35 38

Bergara. Etxebizitza bila nabil. Gela bakarrekoa edo bikoa, eta igogailua duena. 697 86 48 91

Bergara. Euskaldun bikote batek etxe bat hartuko luke errentan. Berdin da txikia bada ere. 649 65 06 39

Oñati. Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 2002tik bizi naiz Oñatin eta lan kontratua daukat. Bakarrik nago hiru seme-alabekin. 635 70 69 83

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongola eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarriala dauka eta wifia ere badago. 603 14 28 89

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Santakurtz 24an, garaje itxia salgai. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 615 78 27 84 edo 661 45 17 05

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. 24 metro koadroko garaje itxia ematen da errentan Alkabieta kalean, kanposantu aldamenean. Ate automatikoak ditu. 635 72 64 08 edo 657 79 65 54

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 130 metro koadroko lokala salgai erdigunean. Hainbat autorendako garaje moduan erabiltzeko lizentziarekin. 60.000 euro. 667 80 92 89

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko garbiketarako Bergaragi emakumea behar da. Ordutegi malguia eskatzen da. Esperien-

tzia baloratuko da. Interesatuok jarri harremanetan Whatsapp bidez, zenbaki honetan: 688 88 46 91

402. ESKAERAK

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean laguntzaile bezala lan egingo nuke. Emakume esperientziaduna. Ordutegi aldetik, arazo barik. 617 20 59 43

Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten. Umeak edo nagusiak zaintzen, garbiketak egiten eta sukaldean lan egingo nuke. Bertako emakume esperientzia handikoa. Ordutegi aldetik, arazo barik. Eskerrik asko!. 647 10 58 72

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko. 688 85 44 78

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Sukalde garbiketaren esperientzia daukat. Gozoki dendan, nagusi eta umeak zaintzen edota atariak garbitzen ere bai. Hiru urteko esperientzia dut zerbitzari lanetan. Presazkoa da. 676 44 85 58

Arrasate. 48 urteko emakume euskalduna, etxeko zerbitzuko laguntzailea eta arlo horretan esperientziaduna, orduka nagusiei laguntzeko prest. 605 71 50 14 (Maribel)

Arrasate. Bertako emakumea, euskalduna, orduka edo egun osoz lan egiteko gertu: umeak edo nagusiak zaintzen zein etxeko lanak egiten. 688 66 76 91 edo 943 79 60 89

Arrasate. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten edo bestela, nagusiak zaintzeko. 672 57 73 03

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

Arrasate. Mutila gertu nagusiak edota laguntza behar duen jendea zaintzeko. Esperientzia dut. 632 08 57 69

Arrasate. Neska gertu goizetan nagusiak zaindu edota garbiketarikoa lanak egiteko. 655 15 36 59

Bergara edo Arrasate. Neska gertu arratsaldez ume eta nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

Bergara. 47 urteko emakume esperientziaduna etxeko lanak eta garbiketarikoa lanak egiteko gertu, goizez nahiz arratsaldez. 647 51 52 80

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordutegi aldetik ez daukat arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Arratsaldean hasi, eta baita etxean bertan bizi izaten ere, lan egingo nuke. Asteburuetan ere lan egiteko gertu nago. 699 66 33 63 (Marlen)

Debagoiena. Banatzaile, gidari, mezulari, dendako kuxan edo apalak betetzeari, zerbitzari, margotzen edota etxeko langile moduan jarduteko gertu nago. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 29 33 69

Debagoiena. Emakume bat gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko lan egiten. Esperientziarekin eta erreferentziekin. 653 81 17 64

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, goizez zein arratsaldez, garbiketarikoa lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. 622 24 86 64

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluk.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Arduratsua naiz etalege-agiriak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 96 30 87

Debagoiena. Emakumea pertsonak zaintzen lan egiteko gertu, arratsaldean. Etxean bizi izaten edo kanpo-langile gisa. Deitu telefono honetara: 632 82 14 45

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua daukat eta zaintza lanetan arituko nintzateke, orduka edo egunez. 600 61 89 96 (Mari)

Debagoiena. Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. 632 77 35 38

Debagoiena. Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila zaintza lanetarako gertu. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan lan egiteko gertu nago. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientziadun mutila pertsonen zaintzan lan egiteko gertu, orduka. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. 634 94 31 59

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 66 13 22

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketarikoa lanak egiteko. Orduka, goizez edo arratsaldez. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 31 44 23

Debagoiena. Etxeak garbitu, lisatu, umeak zaindu, nagusiak zaindu eta kalera lagundu, tabernakoa sukaldean lagundu eta abar egiteko prest nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 634 84 41 94

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 28 81 56

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 46 41 76

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu. Intere-

satuok deitu zenbaki honetara: 638 17 39 35 (Gloria)

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Esperientzia dut nagusiak zaintzen eta garbiketarikoa lanetan. 632 47 71 72

Debagoiena. Etxeko eta baserriko lanetan, nagusiak zaindu edo paseoan laguntzen zein denetarikoa garbiketarikoa egiten lan egingo nuke. Bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95 (Judith)

Debagoiena. Garbiketarikoa egiten edo zaintza lanetan aritzeko gertu nago. Orduka edo egunean zehar. 600 30 24 68

Debagoiena. Garbiketarikoa egiteko gertu nago. Orduka eta jardun osoz. Esperientzia dut. Baita asteburuetan ere. 634 29 32 64

Debagoiena. Garbitzaile profesionala naiz eta lau urtez lan egin dut horretan. Gainera, barran eta sukalde laguntzaile ere aritutakoa naiz. Nagusiak zaintzen ere lan egin dezaket. Kontratuarekin egingo nuke lan. 625 99 75 99

Debagoiena. Gizarte laguntzaileena naiz eta umeak eta nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko gertu nago. Umeak zaintzen esperientzia dut. Autoa daukat. 686 59 28 41

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko eta lorategi edota baserrietan lan egin eta mantentze lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 14 36 65

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketarikoa, banaketarikoa edo denetarikoa lanak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 77 35 38

Debagoiena. Lan bila nabil. Lan ezberdinak egiten gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 05 58 21

Debagoiena. Lan egingo nuke umeak eta nagusiak zaintzen. Orduka ere bai. Garbiketarikoa ere egingo nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 34 70 53

Debagoiena. Leuntze lanetan esperientzia duen mutila lan bila: automozioan, autoen llantak, tronpeten piezak eta abar. 631 05 41 08 / 943 04 77 58 edo arjungrg2013@outlook.es (Arjun)

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak edota garbiketarikoa egiteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketarikoa lanak egiteko gertu nago. 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Nagusiak zainduko nintzateke etxean bertan bizi izanda. Erreferentziak aurkez ditzaket. 39 urteko neska nikaraguarra naiz. 631 72 38 40

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko zein sukalde laguntzaile edo garbiketarikoa lanetarako gertu nago. 632 97 78 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarikoa egiten eta abarreetan lan egingo nuke. 616 35 54 96 (Carmen)

Debagoiena. Nagusien zaintzan esperientzia dut etan lan bila nabil, kontratuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 46 41 76

Debagoiena. Neska arduratsua gertu orduka garbiketarikoa nagusi zein umeen zaintza lanetan jarduteko. 688 81 48 24

Debagoiena. Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko. 688 86 46 60

Debagoiena. Neska euskalduna prest nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizi izaten ere. Klinika laguntzaile tituluarrekin. 688 82 69 68

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 622 59 39 87

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. Esperientziaduna. 602 86 57 26

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarikoa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 638 12 30 22

Debagoiena. Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita garbiketarikoa lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 689 10 48 38

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 64 84 78

Debagoiena. Neska nagusi zein umeak zaindu eta garbiketarikoa lanetarako gertu. Orduka, goizez, arratsaldez edota gauaz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 04 77 99

Debagoiena. Taberna edota elkartek garbitzen eta pertsona nagusiei janaria prestatzen lan egingo nuke. Bertako platerak prestatzen dakit. Elikagaiak erabiltzeko titulua daukat. 625 28 38 11

Debagoiena. Zaintza lanetan arituko nintzateke ordutegi guztietan: etxean bizi izaten, orduka, gauaz edo baita ordezkapenak egiteko ere. 664 12 43 25

Debagoiena. Zerbitzari moduan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak aurkez ditzaket. 629 29 11 23

Lan eskaera. Garbiketarikoa egiten eskarmentua duen emakumea eskaintzen da orduka etxeko garbiketarikoa egiteko. Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta inguruan lan egiteko prest. Tel.: 690 86 46 80

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. Marrazketa artistikoko klaseak jasotzeko, pertsona baten bila nabil. 629 98 42 56

Bergara. Goi mailako ikasketentzat eskola partikularrak jaso nahi ditut. Deitu zenbaki honetara: 605 26 24 62

6. MOTORRA

601. SALDU

Transporter TD5. 8 plaza. 2.5 TDI. 130 ZP. 2003 urtekoa. 145.000km. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 76 10 00

7. ANIMALIAK

701. SALDU

